

Berrigara

Asier Altuna eta Telmo Esnaola "40 ezetz" filmea



Euskaraz egindako filme laburrak

Jardun Elkartearen
eskutik Novedadesen

Goza ezazu Diesel Uda

**MECA
BERGARA**

Ekipamendu
Handiena

Segurtasun
Handiena

Amillaga 5
BERGARA
943 76 40 68



Clio RN 1.9 Diesel 3 atekoa

1.480.000 PTA


8.894,89 EURO




RENAULT

ALZAS elektragintza

Korrante alferno eta
zuzeneko makina
elektrikoen eta abiada
haundiko induzituen
**konponketa eta
bobinaketa**



Antigua auzoa 3, 20577 ANTZUOLA • Telefonoa: 943 76 64 14 • Faxa: 943 76 62 99



Zure pelikulak eta Playstation jokorik onenak
alokagai eguneko 24 orduetan

6 orduko alokera	200 pezeta
12 orduko alokera	300 pezeta
24 orduko alokera	350 pezeta
Egun osoa	400 pezeta
Jokoak	200 pta. eguneko

Bazkide egiteagatik
5.000 pta ordainduz gero
7.000ko kreditua
pelikulak zein jokoak alokatzeko!
10.000 ordainduz gero,
15.000ko kreditua!



Ibargarai 6 BERGARA. Telefonoa: 943 76 32 51



Atxarten bada harrobi bat

Iñaki Gabilondo / Kazetaria

Bizimodu antolatu bat eskaintzen digu biziera orok. Batak zein besteak, beharrak eta nahiak ezin zurrunago eratzen dituzte. Zenbat eta giza-kume gehiago bildu, orduan eta zurrunagoa, bortitzagoa bihurtzen da biziera hori. Errealitatea ahalik eta doitasun handienaz azaltzea omen da helburua. Baina ez helmuga. Azaldu ondoren beste guztiei gainjarri behar baitzaie errealitate hori, eraginkorra izatea nahi badu bederen.

Dena den, ezin da perfektuki errealitatea islatu; lortzea balego, errealitatea bera akatuko genuke eta isladarekin geratu beharko ginatke. Orduan agertuko liriateke bakoitzaren benetako beharrak eta orduan, benetako nahiak, beharrak asetzerantz bideratuko genituzke. Biltzen gintuen biziera horrek eskaintzen zizkigun beharrak asmakizun hutsak baino ez zirela ikusiko genuke. Orduan bakarrik jakingo genuke norberaren eta bere taldearen biziera egokia nolakoa den; bide batez, besteak bezain zilegia eta beharrezkoa, gainjartzen ez den bitartean, noski.

Emazue kasu. Atxarten bada harrobi bat. Bertan ziharduten gizakumeak, zorionez alde egin zuten, eztaidak isildu zi-

relarik. Hala ere, beraietako batek harrobia zaintzen erakutsitako txakur bat bertan utzi zuen: "Otos". Irudiz, ez zuen txakurraren beharrik eta gainera txakurrak ez zuen ezer zaintzeko aukerarik. Izan ere, zaintzaile sutsua eta bere jabearen menpeko ezin hobea izan zena, burnizko harresiz hertsitako leizezulo batean utzi zuen. "Otos" ezin zen handik irten; leizezuloan ez zeukan jakirik, ez eta edaririk; estalpe hitsa eta iluntasun hezea ziren hango lagunak eta arerioak. Denbora kontua zen. Atsekabeak gorrotoa zekarkion sabeletik eztarrira eta malko beroak isurtzen zitzaizkion bitartean ulu izuga-

"Harrobitik gertu, urrezteiko gailurrean, lau iratxo igokarik "Otos" en uluak entzun zituzten. Ez zuten denbora asko behar izan ulu hoi en atsekabea ulertzeko"

riak jaurtitzen zituen baso eta mendietan barrena.

Harrobitik gertu, urrezteiko gailurrean, lau iratxo igokarik "Otos" en uluak entzun zituzten. Ez zuten denbora asko behar izan ulu haien atsekabea ulertzeko. Harrobira abiatu ziren eta uluen hotsen gertutasunej jarraiki, leizezuloan aurkitu zuten "Otos". Ahal zuten guztiarekin saiatu ziren burnizko atea zabaltzen, baina ezinezkoa zen. Tarte bat zegoen harresian eta bertatik jakiak eman zizkioten "Otos" i. Horrela joan zen egun bat, eta beste bat, eta "Otos" gero eta ahulago, gero eta zurbilago. Izugarria zen. Lau iratxoek eskuak eman zizkioten elkarri eta ahal zuten gorroto guztiarekin garrasi egin zuten. "Otos" ek garrasiei ulu izugarri bat gaineratu zien eta oihartzunaren eztaidaz atea, muga iragangaitz hori txiki-txiki eginda geratu zen.

Lau iratxoak eta "Otos" Anboto aldera abiatu ziren. "Otos" indartzen joan zen, eta gertatutakoaz konturatzen. Berak nahi zuelako, izenean moldaketa txiki bat eginez, "Otos" i deitzen da egun eta ilargi beteko gauetan ulu egiten dio ilar-giari. Baina ez atsekabez, zorientasunez baizik. Dagokiguna lortuko dugu!! **B**

■ barruan



M.A. Elkoroberezibar
Irakaslea

"Hezkuntzan paradigma zahar asko hankaz gora jarri ditugu"

8.



Roman Laskurain
Mendizalea

"Bisitatzen ditudan lekuak ezagutzea, mendiak igotzea baino aberasgarriagoa da"

21.



Mariano Perez
Auto-gidari irakaslea

"Autoeskolan hasi nintzanetik 2.000 lagun ingururi erakutsi dotset kotxea gidatzen"

29.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1916. Uztailaren 24an Bergarako Udalak eguraldiaren berri emateko kanpai bidezko komunikazio-sistema abian jartzea aztertu zuen. Komunikazioaren helburua Igeldoko Eguraldi Behatokiak egindako iragarpenak baseritarrei jakinaraztea zen eta ondorengo seinale sistema zuen: hiru kanpaikada jarraian eguraldi ona iragartzeko; lau golpe jarraian hodei giroa iragartzeko; eta bost kanpaikada jarraian euria datorrela abisatzeko.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1978. Uztailaren 8an San Ferminetan, poliziaren erasoan ondorioz, hildako bat eta 150 zauritu izan ziren.

MUNDUAN GERTATUA

1950. Uztailaren 7an koloretako lehenengo telebista emankizuna Estatu Batuetan.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 2

10-14-24-33-35-37 (osag.40/itz.2)

Astelehena 5

6-13-16-21-36-47 (osag 43/itz.9)

Martitzena 6

1-2-9-32-33-40 (osag.48/itz.2)

Eguaztena 7

1-11-23-33-39-44 (osag.30/itz.4)

PRIMITIVA

Zapatua 3

6-11-13-27-36-47 (osag.48/itz.9)

Domeka 4 Saritzarra

1-10-11-25-34-41 (osag.42/itz.6)

ONCE

Eguakitza 2: 98.419 (007 seriea)

Astelehena 5: 57.386

Martitzena 6: 64.599


Eguaztena 7: 55.270

BESTE BATZUK

Bedelkar: 126.837 (Veneziaari birlagunendako bidaia)

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Astebukaerarako eguraldi ona igararri dute: zapatu goizean laino batzuk agertuko zaizkigu zeruan, baina egunak aurrera egin ahala garbitzen joango da. Domekan, hodeiak eta urdinguenak tartekatuko dira. Haizeak iparretik joko du arin.

Ilargiaren aldiak

- Ilbehera: uztailak 6
- Ilberri: uztailak 13
- Ilgora: uztailak 20
- Ilbete: uztailak 28

Eguzkia

Domeka, uztailak 11



Sortu: 06:56



Gorde: 21:48

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 1	34	15	-
Eguakitza 2	35	16	-
Zapatua 3	32	12	-
Domeka 4	24	14	4
Astelehena 5	24	16	5,2
Martitzena 6	21	15	0,1
Eguaztena 7	25	14	-


bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Asta

Kirtena. Ontziena batik bat.
- Astia apurtu jako kafeteriai.

"Pitxarra astatik euki", gaztelerazko *Tener la sarten por el mangoren* parekoa.
- *Presidentiak nai dabena eitten dau, berak dauka astatik pitxarra ta.*



JUSTU OKINA



Mari Karmen Lasheras
15ean 40 urte.
Urte askotarako!
Auskalo nor.



Maite Lazkano
Uztailaren 11n urtebetetzea.
Urte askotarako!
Auskalo nor.



Neritzel Albusua
Uztailaren 15ean 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Maitane Garate
Uztailaren 13an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nekane Alegria
Uztailaren 15ean 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Amaia Arregi
Uztailaren 11n 2 urte. Urte askotarako!
Jon eta Barrenkaleko familia.

Farmaziak

Eguakitza 9:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Zapatua 10:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Domeka 11:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Astelehena 12:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Martitzena 13:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Eguaztena 14:

PUV. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Eguena 15:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Ogia

Domeka 11: Ogizun.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitela	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 66

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

URTEURRENA

Javier
Idigoras Gardoki

Lehen urteurreneko meza
domekan, uztailak 11,
goizeko 13:00etan, Santa Marinaran.




*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Jesus Maiztegi Gantxegi
"Muñondo"

Lehen urteurreneko meza
domekan, uztailak 11,
goizeko 13:00etan, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

zorion agurrak

■ hildakoak

BERGARA

Candido Urriategi Zabaleta

Uztailak 1

Nieves Ibarzabal Arizmendiarieta

Uztailak 2, 79 urte

■ jaiotakoak

BERGARA

Izaro Garmendia Markiegi

Ekainak 23

Asier Muñoz Poza

Uztailak 1

ANTZUOLA

Beñat Kortabarria Berasategi

Ekainak 30

Kepa Altube Miner

Uztailak 2

Datorren asteko alean
UZTAILAREN 16a eta 31
bitartekoen zorion agurrak
argitaratuko dira.



Cirilio Berroia
Uztailaren 9an
81 urte. Urte asko-
tarako! Familiakoak
eta Jovita.



Maider Santorcuato
12an 3 urte. Urte
askotarako! Amaia,
aitatxo eta amatxo.



Manex Manzisidor
10ean 9 urte. Urte
askotarako! Gurasoak
eta Garoa.



Ander Telleria
Uztailaren 12an
7 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Saioa Zumelaga
Uztailaren 9an
11 urte. Urte asko-
tarako! Gurasoak
eta senideak.



Maddi Mujika
Uztailaren 15ean
5 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Pollero
Uztailaren 13an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Lagunak.



Itsaso Mujika
Uztailaren 9an
4 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Iker Osinaga
Uztailaren 10ean
urtebete. Urte askotarako!
Etxekoak.



Miren Errasti
Uztailaren 9an
10 urte. Urte
askotarako!
Etxekoak.

URTEURRENA

Julian
Leturia Mendaraz

Lehen urteurreneko meza
domekan, uztailak 11,
goizeko 13:00etan, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Joakin
Etxaniz Artetxe

Lehen urteurreneko meza
domekan, uztailak 11,
goizeko 13:00etan, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Juan Mari
Loiti Agirre

Lehen urteurreneko meza
domekan, uztailak 11,
goizeko 11:00etan,
Angiozarko San Migel parrokian.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

MUSIKA

► **Ertzaintzaren eresbatza-
ren emanaldia** bihar, zapatua,
12:15etan Elgetan.

► **Per-Cuatro perkusio tal-
dea** bihar, zapatua, 22:30etan
Elorrioko Elizpean.

ERAKUSKETAK

► **Kirol argazkien erakus-
keta** Kultur Etxean.

► **Joxan Bilbaoren** margoak
Nahikarin.

► **Jesus Mari Lazkanoren
"Denborez"** margo erakuske-
ta Bilboko Rekalde aretoan,
abuztuaren 29ra arte.

LEHIAKETAK

► **Txiste lehiaketa**
Soraluzeko San Andres auzoan
bihar, zapatua, hilak 10.
Gaueko 9etarako afaria iragarri
da eta afal gstean erromeria
Eztanda taldearekin.
Goizaldeko ordubatean hasiko
da lehiaketa. Izen-ematea San
Andres elkartearen egingo da,
egun berean, gaueko hamabiak
aurretik. Parte hartzen duten
guztientzat oilaskoa eta txan-
paina izango dira eta gainera
bi sari nagusi banatuko dira:
15.000 pezetakoa txiste onena
kontakten duenarentzat eta
10.000 pezetakoa plazentziar
kutsua ondoen erabiltzen due-
narentzat.

KONTZERTUA

Dover

Noiz: gaur, eguakitza, 21:00etan

Non: Jam aretoan

Sarrera: 1.800 pezeta aurrez, 2.000 takilan

Dover talde madrildarrak "Late at night" bere azken diskoa aurkeztuko du gaur gauean Jam aretoan. Cristina (kitarra eta ahotsa, 23 urte) eta Amparo Llanos (kitarra, 33) ahizpen taldeak izugarritzko arrakasta lortu zuten aurreko diskoarekin ("Devil came to me") duela bi urte: dagoneko lan horren 450.000 kopia saldu dira eta musika independentea delakoaren barruan talde arrakastatsuen dugu Dover. Orain, grunge eta amerikar rockaren hiriburu den Seattle hirian izan dira bi hilabetez euren azken lana grabatzen, Barret Jones produktore ezagunaren laguntzaz, hain zuzen. Jonesek, besteak beste, Nirvana eta Presidents of the USA taldeekin lan egin izan du. Disko berria joan zen ekainaren 28an kaleratu zen eta "DJ" izenburuko kanta ze-

rrenden aurrealdean da jadanik. Musika kritikariaren arabera, azken hau taldearen diskorik heavyena da. Cristina Llanosen hitzetan, "gertatzen da denborarekin heavyagoak garela. Orain gure lehendabiziko diskoa entzuten dugunean oso suabea iruditzen zaigu. Gainera, zuzeneko emanaldietan kaña gehiago sartzea askoz ere dibertigarriagoa da". Llanos ahizpekin batera, Jesus Antunez (bateria, 25 urte) eta Alvaro Diez (baxua, 26) izango dira Jameko eskenatokian.

Gaurko kontzertua Dover ikusteko aukera bakarrenetakoa izango da, Estatu osoan bost kontzertu besterik ez baitute emango Estatu Batuetako jirari ekin aurretik. Glü Birne taldea izango da gaur madrildarren teloneroa.



Dover taldeak "Late at night" azken diskoa aurkeztuko du Jam aretoan.

IKASTAROAK

► **Udako Euskal
Unibertsitatea**, Iruñean uztai-
laren 19tik 30era. Bergarako
Udalak ikastaroen matrikula
ordaintzeko laguntzak ematen
ditu. 943 77 91 66.

► **Bideo edizio ikastaroa**
(50 ordu) irailaren 27tik azaroa-
ren 4ra bitartean, astelehen,
astearte eta ostegunetan,
17:00etatik 20:00etara.
Matrikula: 16.000 pezeta.
Plaza mugatuak. Interesatuak
943 77 91 58 zenbakian jaso
ditzakete argibideak.

DEIAK

► **"La Bascongada y el
Ministerio de Marina**.
Espionaje, Ciencia y Tecnología
en Bergara (1777-1783)" libu-
ruaren aurkezpen ekitaldia
gaur, eguakitza, 19:30etan

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGIA:

8.00-13.00 eta 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

BILBO garraioak

Bergara-Bilbo eguneroko zerbitzua

Partikularrendako eta industriendako

Leizariako San Lorentzo 19, 3C
Tf. 943 76 35 74. Mugikorra: 609 479 443

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Udaletxeko Pleno aretoan. Liburuaren egileak, Ines Pellon eta Pascual Roman, izango dira.

► **Txino jokoaren txapelketa** gaur, eguakitza, 23:00etan Canalejas tabernan. Izen-ematea (300 pezeta) ordu-bete lehenago itxiko da.

► **Euskal presoek eskubideen aldeko manifestazioa** bihar, zapatua, 18:00etan Donostiako Boulevardetik. Presoen aldeko Euskal Herriko Gazte Ekimenak deituta.

► **Gure ametsa.** Jose Antonio Vilaboaren eskutik, queimadari buruzko hitzaldidastaketa uztailaren 16an, 19:30etan. Ondoren, galiziar produktuekin afaria. Izen-ematea (4.500) elkartearen bertan.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, uztailak 14, 18:30etan Seminarioko lokalean.

► **Arantzazuko Santutegira** peregrinazioa eta Loiolako Santutegira bisita uztailaren 25ean. Autobusa Bergararik goizeko 9:30etan irtengo da, autobus geltokitik. Arantzazurainoko ibilbidearen zati bat oinez egingo da. 11etan penitentzia komunitarioa egongo da, 12etan Meza Nagusia Basilikan, 14:00etan bazkaria Hospederian (1.900 pezeta), 16:15etan bideoa eta 5etan Ama Birjinari agurra: errosarioa eta Benedikta. 17:30etan autobusak irtengo dira Arantzazutik Loiolara eta Betan Loiolatik Bergarara. Izen-

ematea Agirrebeña (San Antonion), Garitono (Zubiaurren), Gube drogeria (Matxiategin) eta Zatoia (Barrenkalen) komertzioetan.

► **Abiadura Handiko Trenaren aurkako akanpada** uztailaren 16tik 25era Uhart-Arakilen, AHTaren aurkako asanbladak deituta: mendi ibilaldiak, hitzaldiak, musika, zinea, tailerrak eta bestelako ekitaldiak.

► **Gazte Informazio zerbitzuak** ordutegia aldatu du udan. Eguazten, eguen eta eguakitz goizetan, 9etatik ordu-bata arte izango da zabalik. Udako ordutegia datorren eguaztenetik, hilak 14, abuztuaren 27ra arte izango da indarrean. Bestalde, abuztu erdiko bi asteetan, 9tik 24ra arte, itxita izango da.

JAIK

► **San Kristobalگو jaiak.** Gaur, eguakitza, Zabaleta Band taldearekin dantzaldia, 23:00etan. Bihar, zapatua, San Kristobal eguna: Meza Nagusia 11:30etan eta ondoren kotxeen bedeinkapena. Jarraian, Zelai harrijasotzailearen saioa eta trikitilariak. Arratsaldeko 4retan IV. Plater tiraketa eta 23:00etan Musutruk taldeak alaitutako dantzaldia. Azkenik, domekan, hilak 11, Meza Nagusia 12etan eta ondoren kotxeen bedeinkapena. Jarraian trikitilari gazteekin erromeria.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Flores de otro mundo

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, ik. eguna: 19:30.

ARRASATE. Alai zinema

Iluminata

Eguakitza: 22:00.

La sombra del faraon

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

ARRASATE. Monrerron

El milagro de P. Tinto

Eguena, aire zabaleko zinea: 21:30.

EIBAR. Uzanga

Matrix

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Comportamiento perturbado

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Solas

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

AZKOITIA. Baztartxo

Vaya un fugitivo

Eguakitza: 22:00.

Zapatua: 22:00.

Solas

Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.

Astelehena: 20:00.

OÑATI. Santana

La trampa

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

FLORES DE OTRO MUNDO

Zuzendaria: Iciar Bollain.

Aktoreak: Jose Sancho,

Elena Irureta, Luis Tosar.

Iciar Bollain aktore eta zuzendariaren filme hau saritua izan zen Canneseko Zine Jaialdian aurten. Bollainek hain gustoko duen Ken Loach zuzendari britaniarraren estiloaren bide-tik, komedia eta drama tartekatzen dira filme errealista honetan. Patricia Dominikar Errepublikatik heldu da Madrilerara bere jaioterriak lortzerik ez duen segurtasun ekonomikoaren bila. Baina gauzak ez zaizkio uste bezain ondo aterako eta beste hainbat etorkinekin elkartuko da, herri txiki batean bizi diren gizonengana joateko emakumeen karabana antolatuz...



EL MILAGRO DE P. TINTO

Zuzendaria: Javier Fesser.

Aktoreak: Luis Ciges, Silvia

Casanova, Pablo Pinedo.

Arrasateko Udalaren aire zabaleko zine emanaldiekin jarraituz, datorren egunean Javier Fesserren lehendabiziko luzemetraia ikusteko aukera izango da. Aurten efektu onei zegokion Goya saria eskeratu zuen komedia honek.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,

BIOTER produktuak,

haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

LONBIDE OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



**Miguel Angel Elkorobere-
rezibarrek "Ikasgelako
ohiko mugen zabalkun-
tzarako esperientziak"
izenburuko hitzaldia
eman zuen aurreko aste-
an Donostiako Miramar
jauregian, "Kalitatea
hezkuntzan. Kalitatea
ikasgelan" udako ikas-
taroaren barne.**

G. Zeri buruz jardun ze-
nuen hitzaldian?


E. Ikasgelaren ohiko
mugak gainditu eta ikasleen
motibazioa eta ikasteko gri-
na pizteko zenbait ahalegi-
nen berri eman nuen. Alde
batetik, hizkuntzak ikasteko
daukagun baliabide gela
berezia aurkeztu nuen: ber-
tan, modu atsegin eta eroso
batean aritzen dira ikasleak,
elkarrekin adostutako plan-
gintza bat aurrera segituz,
autonomia osoz, taldelane-
an kalitate erremintak erabi-
liz (eguneko gai-zerrenda,
ardura banaketak, egunero-
ko ebaluaketak...) eta beti
aniztasunari erantzun egoki
bat emanez. Bestalde, zurg-
gintzako irakasleek antola-
tzen duten altzarien disei-
nurako lehiaketaren nondik
norakoak azaldu nituen. Es-
tatu mailako lehenengo
lehiaketa da: altzariaren di-
seinutik hasi eta fabrikazio-
ra arteko prozesua lantzen
dute ikasleek eta Europa
mailako feria garrantzitsue-
netan erakusten dituzte eu-
ren lanak. Euren web orria
ere ikusgarria da ([www.
dfonet.com/madera](http://www.dfonet.com/madera)).

G. Kalitatea enpresa
munduari lotu izan zaio be-
tidanik. Nola uler daiteke
kalitatea hezkuntzan?

E. Ikastetxe batek, neu-
rri handi batean, enpresa
batek bezala funtzionatu
beharko luke: jestio sistema
on bat aplikatuz, bere es-
kaintza ondo definituz eta
bere bezeroak (ikasleak,
irakasleak, bestelako langi-

MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR
Irakaslea

*"Hezkuntzan
paradigma zahar
asko hankaz gora
jarri ditugu"*



Miguel Angel Donostiako Easo institutuko kalitate arduraduna da.

leak eta gurasoak) behar
bezala zainduz. Miguel Al-
tuna institutua Estatu mailan
lehenetarikoa izan da ISO
9002 ziurtagiria eskuratzen
eta hezkuntza kalitateari
eman dioten bultzada izu-
garria izan da. Easo institu-
tuak datorren urtean lor de-
zake ziurtagiria eta gure bi-
dea, eurei esker, errezagoa
izaten ari da. Kalitateari da-

***"Ikastetxe batek
enpresa batek
bezala funtzionatu
beharko luke,
jestio onarekin,
eskaintza ondo
definituz eta
bezeroak zainduz"***

gokionez, Jaurlaritzak lanbi-
de heziketako ikastetxean
aldeko apostua egin du.

G. Zenbat denbora dara-
mazue zuen ikastetxean
langintza horretan?

E. Lau bat ikasturtez ari
gara, baina azken bitan go-
gorrago ekin diogu. Institu-
tuko irakasle guztiak (80
bat), idazkari eta atezain ba-
tzu eta zenbait ikasle (op-
zionala baita) hamalau ho-
bekuntza talde osatzen du-
gu, bakoitza gai ezberdin
bat landuz, irakaskun-
tza/ikasleentzako prozesuari
dagozkionak: ikasle eta ira-
kasleen harrera, programa-
zioa, ebaluaketa, etabar. Eta
bestelako alderdiak: ISO
9002 lortzeko behar den do-
kumentazioa egiteko taldea,
euskararen normalkuntzara-
ko plana, Interneten erabili-
pena eta aipatutako baliabide
gela, besteak beste.

G. Antzematen duzue
hobekuntzarik?

E. Lan egiteko era alda-
tzen ari gara. Paradigma za-
har asko hankaz gora jarri
ditugu eta horrek zalantza
eta egonezinak eragiten di-
tu. Hala ere, orokorrean, es-
fortzua gure onerako dela
antzematen ari gara. Kultura
berri bat ezarri dugu. Alda-
ketak ez dira aldatzeagatik
soilik egin behar, helburu
batzuen erantzun argi beza-
la baizik, komeni zaiguna-
ren arabera, eta kalitate sis-
temak modua erakusten di-
gu, horretarako erremintak
gure eskuetan utziz. Erre-
minta kaxa bat erostera goa-
zenezan, ahalik eta osatuena
erosten saiatzen gara. Baina
erabiltzen jakin egin behar
da. Koadro bat zintzilikatze-
ko, ez daukagu erositako
erreminta guztiak erabili be-
harririk, beharrezkoak zaizki-
gunak baizik. Hezkuntzan,
oraindik ere, pareta asko
hutsik daukagu eta aspal-
diko zenbait koadro zeharo
oker. **B**

EAJ-EA zerrenda bozkatuena izateari esker alkate izendatua izan zen Gallastegi

EAJ-EA koalizioko zortzi zinegotzien botuekin Victoriano Gallastegi Bergarako alkate aukeratu zuten joan zen zapatuan Udaletxeko Pleno Aretoa jendez gainezka zegoela egindako Osoko Bilkuran. Udalbatza berria osatzen duten gainontzeko bederatzizinegotziek, EHko zazpiek eta PSE-EE eta PPko banak boto zuria eman zuten.

Legealdi berriko lehen Plenoa normaltasunez burutu zen eta 25 bat minutu iraun zituen. Lehenbizi, adineko mahaia osatu zuten Udalbatza berriko zinegotzi zaharrenak, EAJko Felipe Altunak, eta gazteenak, EHko Maider Larrañagak. Ondoren, zinegotzi guztiek zin egin zioten karguari, EHkoak legeak behartuta, gainontzekoak besterik barik.

Bukatzeko, alkatea aukeratzeko bozketa egin zen. Esan dugun bezala, EAJ eta EAko zortzi zinegotziek euren hautagaiari eman zioten botoa eta gainontzeko bederatzizinegotziek boto zuria eman zuten. Honenbestez, Victoriano Gallastegik erabateko gehiengoa lortu ez zuenez, ekainaren 13ko Udal hauteskundeetan hautagai botatuena izateari esker bihurtu zen Bergarako alkate, Pleno Aretoan bildutako EAJ eta EAko jarraitzaileen txaloen artean.

ERRESPETUA

Ondoren, Jesus Mari Garitano EHko bozeramaleak hartu zuen hitza eta beste hiru alderdiei zuzendu zitzairen. Alkate berria zoriondu ondoren, adierazi zion ez zituela ahazten iraganean bizi izandako bazterketak baina bizi ditugun une historikoan elkarlanerako prest izango

zirela. PPko zinegotziari, berriz, bere taldeak ez zuela politikoki errespetatuko, PPk Euskal Herriaren eskubideak errespetatzen ez dituelako. Gaztelaraz luzatu zizkion hitzak eta Plenoetan erdara erabiltzen zuten lehen eta azken aldia izango zela esan zuen. Azkenik, PSE-EEko ordezkariari Euskal Herriaren borondatea errespetatzea eskatu zion. PSE-EEko Alvaro Esparzak, bere adetik, alkatea zoriondu eta errespetua guztientzat behar zela erantzun zion Garitanori. Victoriano Gallastegik, azkenik, herritarrek berarenganako erakutsitako konfidantza eskertu zuen eta hauteskundeetara aurkeztutako egitasmoak betetzen saiatuko zela esan zuen.

Plenoa hasi aurretik, enkartelada egin zen San Martin plazan euskal preso eta errefuxiatuen alde. Bertan

50 bat lagunek hartu zuten parte, tartean EHko zinegotziek. Hauek, bestalde, Euskal Presoak Euskal Herrira idatzia zuen kamiseta soinean zutela izan ziren Plenoan. Pleno Aretoan, jende artean presoek argazkiekin egindako kartelak eskuetan zituzten herritar ugari ere bildu ziren.

UDAL GOBERNUA ERATZEKO BILERAK

Victoriano Gallastegi alkate Gobernua Batzordea, alkate ordeak eta batzorde buruak osatzeko bileretan izan da azken egunotan. Alkatea aukeratzeko Plenoaren aurretik pare bat bilera izan zituen EHko ordezkariekin eta aste honetan eta hurrengo egunetan ere bilduko dira. Gauzak okertzen ez badira, ziurrenik, EAJ-EA-EH taldeek osatutako Udal gobernua izango dugu legealdi berri honetan. **B**



Zortzi aurpegi berri izango ditu Udalbatza berriak. 17 zinegotzitatik 4 emakumeak izango dira eta, bestalde, PPko zinegotzia izango da lehen aldiz Bergaran.



Presoen aldeko Udaletzeko itxialdiak bultzatu dituzten taldeetako ordezkariak martitzeneko prentsaurrekoan.

Presoen aldeko itxialdien balorazio positiboa egin dute

Presoen egoerari buruzko eskutitzak bidali dituzte

Ekaineko asteburuetan presoen alde Udaletxean egin dituzten itxialdien balorazioa egin zuten joan zen martitzenean, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Senideak, Bergarara Plataforma eta Euskal Presoak Euskal Herrira taldeetako ordezkariak.

Itxialdietan parte hartu zuten guztiei eskerrak eman zizkien eta itxialdietan izan

zirenek egin dituzten jardueren berri eman zuten. Horrez gain, itxialdietan izan direnak bisitatzera joan direnei eskerrak eman zizkieten eta jaso zituzten presoen eskutitzak pozez hartu zituztela esan zuten.

Lehen itxialdian preso eta errefuxiatuen egoera salatzen hainbat tokitara eskutitzak bidali zituztela esan zuten. Hain zuzen ere, Bruselako Euskadiren Ordezkaritari, Udal hauteskundeeta-

ko zerrenda buruei, Arartekoari, Europako Parlamenturako hautagaiei, Lehendakariari eta Komunikabideetako zuzendariei bidali zizkieten eskutitzak eta Bergarako presoek ere beste eskutitz bana. Bigarren itxialdian, Xabier Markiegi Arartekoak eskutitza erantzun zuen bere esku zegoena egiteko prest zegoela adieraziz. Eskutitz honi erantzun zioten, Fresnes eta Herrera de la Manchako espetxeeta-

ko presoen egoera larria gogoratuz eta neurriak hartu zitzan eskatuz. Bestalde, Herrera de la Manchako presoen egoera salatzen zuten komunikatu bat idatzi zuten eta herritarren sinadurak bildu zituzten. Ondoren, komunikatua eta sinadurak Ciudad Realeko juzari eta Herrera de la Manchako espetxeko zuzendariari bidali zitzaizkien. Horrez gain, Kotsuladua Fantesari ere eskutitza bidali zitzaion.

Hirugarren itxialdian azkenik, Fresnes-eko epaileari presoak eta hauen senideak elkartzeko eskatuz beste eskutitz bat bidali zioten herritarren sinadurekin eta eliz atarrietan komunikatu bat irakurri zuten. Horrez gain, Bergarako presoek eskutitza bidali zitzaion. Hiru itxialdietan komunikatuak idatzi dituzte herritarren artean banatzeko eta hirugarren itxialdian, bereziki, herririk elkarteetan banatu zuten komunikatua.

Itxialdietan parte hartu zutenek esan zuten Arartekoaren kompetentzia Euska Autonomi Ergidegoa delako erantzun zela Xabier Markiegi eta berak egin zezakeen guztia egin zuela. Erantzun berean, komunikatua Espainiako eta Frantziako herritarren defendatzaileei igorri zizkiela erantzun zuten Arartekoak. Itxialdietan parte hartu zutenentzat, hori baino gehiago egin dezake Arartekoak; politikoei ere gehiago egiteko eskatu zieten.

Mujika
geologia

Berezitasunak:
Bizkotxoak
Errellenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA** 943 76 10 34

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK	PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA	HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA	IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitzizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak


Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

Arratsaldeko euri zaparradak giroa apur bat hoztu zuen San Martzialen

Ohizkoa den moduan, San Martzial ermita inguruko zelaia jendez bete ziren joan zen domekan. Betiko moduan lagun arteko giroa izan zen nagusi, baina arratsalde partean botatako euri zaparradak batzuk kikildu egin zituen eta asko izan ziren iluntzea baino lehen herrira jaitsi zirenak.

Eguraldi iragarpena aintzat hartu eta euritik babes-teko toldoak jarri zituztenek ez zuten arazorik izan, baina beste askok herriko elkarte gastronomikoetan hartu zuten babes aurratsaldeko laurak aldera euria hasi zenean. Osterantzean, normaltasunez igaro zen San Martzialeko erromeria,

goiz partean: gurdiaren igotera, meza, bertso saioa, dantzak... Arratsaldean, ostera, ez zen txinga eroate lehiaketarik izan, belardia lokaztuta baitzegoen, baina soka-tira egin zen, nahiz eta beste urte batzuetan baino talde gutxiagok lehiatu. Erromerian ere jaigiroa izan zen nagusi eta jaitsiera, azken urteetan bezala, ez zen oso jendetsua izan. Iluntzeko bederatzietan, jende pilo-a geratzen da kantinen aurrealdean eguna luzatu nahian. Euriaren eraginez, zelaia laban jarri zen eta asko izan ziren lurrera jausi eta kolpeak hartu zituztenak. Batzuk ospitalera eram zituzten. **B**



Ardo barrikaren inguruan, bertso eta dantza sioak ikusteko eta bolatokian jende asko bildu zen. Euriarengandik babesteko, toldoa ezinbestekoa.

Berrigara

375 zenbakia.
1999ko uztailaren 9a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.

Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.

Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mirarri Alberdi, Mariipi Laskurain.

Erredakzio kontseilua:
Miguel Angel Elkorobereziar, Alex Labaien, Gorka Elortza.

Komikiak: Bittor Rodríguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak:
Juan Martín Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.

Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azaleko argazkiak: Asier Altuna.

Tirada: 5.200 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriaritzako Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

ODOL EMAILEEN GAINEKO BERRIAK

1999. urtea hasi zenetik igaro diren 6 hilabete hauetan odola emateko 11 deialdi egon dira, eta deialdi horietan guztira 677 donazio egon dira, horietatik 27 odol emaille berriek egindakoak.

Odol emate kopurururik altuenetakoa izaten jarraitzen dugu, azken bolada honetan bereziki. Zer dela eta hainbeste odol emate 15.400 biztanleko herri batean?

Garrantzi handia ematen diogu urte hasieran emaille ematen diegun egutegiari. Bertan odola emateko deialdien egunak jasotzen dira, eta adierazten diegu ez egoteko abisuaren zain odola emateko. Konturatzen ari gara odol emailleak kontzientziatzen ari direla, haien kasara aurkezten baitira azken donazioa egin zutenetik derrigorrezko bete beharreko epea igarotzen denean. Epea honakoa da: bi hilabete eta erdi, emakumezkoak ez badute urte barruan hiru aldiz baino gehiago ematen, eta gizonezkoek lau aldiz baino gehiago ez badute ematen, hala agintzen baitu legeak.

Ezin dugu aipatu gabe utzi guretzat garrantzia handia daukatela komunikabideek, bereziki hainbat irratiek (Arrate Irratia, Loiola eta Donostiako Herri Irratiek eta Euskadi Irratiak), hainbat egunkariak (El Diario Vasco, El Correo eta Deia) eta Berrigarak, herriko asteroko aldizkariak. Baita odola emateko deialdien berri emateko orduan laguntzen dituzten denek ere (Edel, Mujika jantzi-denda eta Herran). Izan ere, denda horiek deialdiaren aurretik, hainbat egunez, ipintzen dituzte kartelak eskapareteetan ikusgai, eta horri esker odol emailleek hobeto ikusten dituzte kartelak eskapareteetan ikusgai, eta horri esker odol emailleek hobeto ikusten dituzte egunak.

Bestalde, oso gogoko dugu entzutea odola eman ostean eskaintzen dugun "Goi mailako sukaldaritza" atsegin duela jendeak, eta emailleen arteko berriketaldia errazteaz gain hurrengorako indarrak hartzen laguntzen diela.

Odol emailleentzat ipintzen dugun mahaia ikusgarria izaten da, eta era honetako galderak egiten ditu jendeak: zelan lortzen duzue hau guz-

tia? Izan ere mahaia harrigarri egiten du jendea. Guk erantzuten diegu okindgiek (Mizpildi, Konde eta Eroski-ko Bolintxok) dohainik laguntzen digutela. Bestalde, laguntzaile berriak ditugu orain: Barrenkaleko fruitadenda, Idatzi eta Azokako Mertxe. Gainera, janariari laguntzeko edariak behar izaten direnez, Manso eta Atxegak ere laguntzen digute ura Coca-Cola eta ardoarekin.

Beste hainbat produktu erosi beharra ere izaten dugunez, honako hauen laguntza ere jasotzen dugu: Udala, Euskadiko Kutxa, Kutxa, Consum Eroski, baita gure bazkide babesleen urteko laguntzak ere. Horien laguntzari esker lortzen dugu mahaia eta abarrek sortzen dituzten gastuak estaltzea.

Bukatzeko, idazki honen bidez jakinarazi nahi dugu beste txanda bateko langileek ere odola emateko aukera izan dezaten, astebeteko jautzia egin dugula, eta odola emateko hurrengo deialdia uztailaren 14an izango dela.

Besterik gabe, eskerririk asko eta hurrengora arte.

Bergarako Odol Emailleen Elkarte


tira biraka: alex ugalde



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Zapatuan San Kristobal eguna dela eta, autoa bedeinkatzeko ohiturarik badaukazu?



Mikel Gutierrez

Ez dot sekula ohiturarik eduki. Aittak eta bai, baina nik ez. Hori bai, aittak beria, neuria eta danona eruaten dittu bedeinkatzera.



Marije Urkiola

Oiñ arte ez naiz sekula joan, baiña aurten autoa erosi berri dot eta joango naiz seguruen. Aurretik eduki giñuana Arantzazun bedeinkatu giñuan.



Andres Alzelai

Ez. Lehen iñork ez zotsan kontu horri kaso haundirik eitten eta neuk pe ez. Hiru auto eduki dittut eta bat be ez dot bedeinkatzera eruan.



Maite Hervas

Ez daukat automobilik, baiña nere lagun eta familixartekoek bedeinkatzera eroaten dabe eta nik be egunen batén erosten badot, bedeinkatzera eroango dot.



Ruperto Vicente

Ez, sekula ez, ez San Kristobalera ezta Arantzazura be. Nik ez dotsat kontu horri kasu haundirik eitten eta ez daukat ohiturarik.



Mila Agirrezabal

Ointxe erosi dot autoa lehenengo aldiz eta bedeinkatuko dot seguruen. Betiko ohiturak gorde behar diela uste dot.



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.

BOLUKO TXAKUR ZAUNKAK

Migel Mendibilek deitu digu aste honetan Bolu aldeko txakurren zaunkengatik protestatzeko. Migelek diosku txakurrek ez dutela errua, jabeek baizik. Kontua da Bolu inguruko hainbat etxetan txakurren jabeek balkoira ateratzen dituztela txakurrak gauetz. Hauetakoren bat zaunka hasiz gero, beste guztiak ere zaunka hasten ei dira eta, jasangaitza gertatzen ei da "serenata". Migelek dio Udalak etxeko animaliei buruzko arautegia onartuta daukala eta ez dakiela horrelako kasuei aurre egiteko araurik jaso den ala ez. Kontuak kontu, jabeek eskatu nahi die txakurrak balkoira atera beharrean, etxean bertan eduki ditzatela.

■ ikuspuntua: **luis laskurain**

Arte gune berria

Datorren eguakitzean zabalduko da Beart-en egoitza. Arte plastikoen lanketa gehienetan oso jardun pertsonala bada ere, behar-beharrezkoak dira artisten biltokiak elkarri esperientziak trukatzeko eta bakoitzaren obra bere testuinguruan kokatzeko.

Artisten multzoa Beart elkartearen bildu izateari esker lortu da Udalak Bolun arte plastikoetarako gune bat prestatzea. Lokalak oso konfigurazio berezia du eta



uneko beharren arabera.

Beart elkarteak bertan garatu nahi duen jarduera nagusia bertako kideen beharrei erantzutera bideratuko da eta bereziki ondorengo arloak landuko dira: beren eguneroko lana betetzeko gune bat eskaintzea, hastapeneko ikastaroak ema-

400 metro karratu hartzen ditu bost gunetan banatuta. Bost gune horiek batera zein bakoitza bere aldetik erabili ahal izango dira, unean

tea, arlo bereziak lantzeko tailerrak eskaintzea, biblioteka, beste elkarte edo talde batzuekiko elkarlana, lehiaketak, erakusketak, eta abar.

Landu nahi diren jardueretako batzuk gaur egunean hiriburuetan baino ez dira lantzen eta denok dakigu zein nekeza zai-gun bailara honetan bizi garenoi jarduera horietara iristea edo eurotan parte hartzea. Badakigu lan handia dugula egiteko, baina Beart-ek Bergaran eta bere eskualdean arte plastikoak egoki lantzeko beharrezko giroa eta bitartekoak sortu nahi lituzke. **B**

■ asteko menua: **ugarrixa merenderoa**

Atuna tomatearekin



IÑIGO ODRIOZOLA
Ugarrixa merenderokoa

OSAGAIK (4 lagunentzat)

- Kipula bat
- 2 berakatz ale
- Kilo bat atun
- Kilo bat tomate natural
- 5 koilarakada olio
- Bi piper berde

PRESTAKETA

- Tomatea egiteko, zartagin batean kipula eta berakatz ipini oliotan biguntzen.
- Piper berdeak gehitu eta kipularekin eta berakatzarekin ondo nahastu.
- Tomatea bota eta gatza eta azukre apur bat gehitu.
- Tomatea sutan denboratxo batean egiten eduki.
- Atuna plantxan egin, hezurak kendu eta tomatearekin batera ontzi batean ipini.
- Atuna tomatearekin sutan denboratxo batez eduki.

■ adituen esanetan

Erretzaile ez direnen eskubideak

MATILDE RIVAS, *abokatua*

Drogomenpekotasun, prebentzio, asistentzia eta gizarteratzeari buruzko legean, besteak beste, tabakoa osasunerako sustantzia kaltegarria dela jasotzen da eta erretzaile ez direnen eskubideak bermatzen dira. 18 urtetik beherrako gazteek erabiltzeko aukera duten tokietan (eskolak, garraioak, ospitaleak, museoak, etab.) erretzeko debekua indarrean dago. Administrazio publikoaren lokaletan erretzaileei zuzendutako eremu bat egoteko aukera ematen da. Eskoletan, 18 urtetik beherrakoak ezin izango dira eremu horretan egon.

Lanari dagokionez, emakume haurdunak diren lekuetan guztiz debekatu-

ta dago erretzea eta, bestelako kasuetan, erretzaile ez direnen eskubideak nagusituko dira, nahiz eta erretzaileen dako zona bat egon. Bi eremuak ondo desberdintzea komenigarria litzateke. Jatetxeen kasuan, legearen arabera elikagaiak erabiltzen diren lekuetan (supermerkatuetan adibidez) ezin da erre baina bai elikagaiak kontsumitzen diren lekuetan (jattetxeetan hain zuzen). Eta tabernen kasuan ez da inolako debekurik, leku pribatuak direlako eta suposatzen delako 18 urtetik beherrakoek ez dutela sartzeko aukerarik. Bestalde, tabako eta alkoholaren publizitatea oso mugatua dago gaur egun. **B**

■ bergarako gordailutik

ARTXIBOA BERRITZEA

Imanol Sorondo

Gaitasun handia falta zaio memoriarik gabeko gizakiari; era berean, hutsune handia dauka bere izatearen oromenik ez duen edo erabiltzen ez duen harriak. Agiritegi eta artxibotan gordetzen dira herrien historieta-ko oroitzapen asko.

Olaso eta Zumalabetar Migel Joseph Bergarako diruzaina eta arduraduna da 1764an. Batzar baten hitza hartu eta esan du idazki ugari daudela zahartasunagatik eta letren nekearengatik zailtasunez irakurri daitezkeenak eta, gehiago hondatu eta irakurri ezinean gelditu aurretik gai horietan adituren bat ekartzea beharrezkoa dela.

Frantzisko Xabier Saenz de Jubera, hizkizaharlari ospetsua, etorri eta urrian eta azaroan aritu zen lanean. Izen handikoa, toki askotan ibilia zen horrelako birridazkietan: inguruan Arrasaten, Garesen eta Iruñean eta Gaztela herrietan eta Leonen urrutikoetan, adibidez.

Ondo baino hobeto zehaztu zituen Migel Joseph diruzainak nola egin behar ziren lanak: Frantzisko Xabierrek kopiak idatzi behar zituen, zin egin ondoren, eta iskribau baten aurrean kopiak idatzi ere; iskribau berak den-dena ikusi, aztertu eta jatorrizko idazkiekin parekatu behar zituen. Bidezko zen bezala izenpetu ondoren, idazki guztiak, bai kopiak eta bai jatorrizkoak, Migel Josephi eman behar zitzaizkion, bakoitza artxiboan zegoekion tokian lagatzeko.

Gizon horiei esker dauzkagu gaur Bergaran oso itxura oneko kopiak. Denak aurkitu litezke Artxiboan; kopiatu bakar bat falta da, zegoen tokitik harrapatua. **B**



Urrezko ezteiak

Balentin Larrañaga eta Isidra Markiegi senar-emazteek euren ezkontzaren urrezko ezteiak bete berri dituzte. Uberako **Golantxe baserrikoak** dira Isidra eta Balentin, eta euren senideekin bildu ziren joan zen **ekainaren 27an** hain fetxa berezia ospatzeko. Arantzazun meza entzun ondoren, bapo bazkaldu zuten Oñatiko jatetxe batean eta guztiek egun ederra igaro zuten. Zorionak!!

Aranzadikoak ikas-bidaian



Aranzadi Ikastolako DBHko

4. mailakoek (16 urtekoak)

ikas-bidaia egin zuten ekainaren

14tik 18ra bitartean. **Miren**

Leturia, Jone Aranguren eta

Manu Arregi irakasleen

laguntzaz, 52 ikasle izan dira

Katalunian, Lleidan eta

Tarragonan. Port-Ainen

(Lleidan) raftinga, senderismoa

eta bestelako kirolak egiteko

aukera izan zuten eta **Coma**

Rugan (Tarragonan) atseden

hartu zuten gero, hondartzan.

Port Aventura parkera bisita

ere egin zuten eta guztiek

fenomeno-pasa zuten. Sekula

ahaztuko ez duten bidaia,

dudarik gabe.



Futbolin txapelketa

Cesar eta Juan Mari

gasteiztarrak nagusitu ziren zapatuan **Ugarrixan jokatu zen futbolin txapelketan.**

LAMek antolatutako txapelketaren bosgarren edizioan, bi multzotan banatuta, 16 bikote aritu ziren lehian eta 8 bikote onenak final laurdenetarako sailkatu ziren. Azkenik, finalean, Juan Mari eta Cesar 18 eta 16ko emaitzarekin nagusitu zitzaizen **Igor eta Iban** bergararrei. Hirugarren tokian, berriz, **Txori eta Jaso** geratu ziren.

HHIko ikasleak Cabarcenon

Bergarako Helduen Heziketa Iraunkorreko (HHI-EPA) ikastetxeko ikasleek Cabarcenora eta Santanderrera irteera egin zuten joan zen **ekainaren 10ean**. Ikasleek dagoeneko amaiera eman diote aurtengo ikasturteari eta, giro ezinhobean, ederki asko pasatu zuten Cabarcenoko Parkean eta Santander inguruetan eta eskurtsioaren bidea ere grabatu zuten. Guztira, 55 ikasle joan ziren, **Miren Gurutze Arana eta Gaspar Delgado** irakasleekin batera. Bestalde, HHI-EPA ikastetxeak datorren ikasturterako matrikula egiteko gonbita luzatu die ikasteko go-goia duten helduei. Bien bitartean, ondo pasa oporrak!!



ZORIONAK! BEDELKAREN zozketa

Ekainaren 26an egina.

Irabazlea:

Aitor Inza.

ARRANO tabernan emandako
txartela izan zen saritua:

126.837 zenbakia.




Aitor Inza (saritua), Julen Narbaiza (Bedelkarreko presidentea) eta Unai Beitia (Arrano tabernakoa).

SARIA

Veneziara bidai
2 lagunendako.
2 gauko egonaldia,
gondolan paseoa eta
100.000 pezeta
gastuetarako



URKAN




¿INDUSTRI ARGAZKITARAKO ZERBITZU ARINA,
ALDAKORRA ETA KOSTU GEHIGARRIRIK GABEKOR BEHAR AL DUZU?

URKAN, aintzindaria da INDUSTRIAREN alorrean teknologia digitala erabiltzen, eta argazki zerbitzu AZKARRA eta KALITATEZKORA eskaintzen dizu, orain arte pentsa ezin zitekeen moduan kostuak merketuz.

Eskaneatu beharrik gabe, pelikularik gabe, errebelatu beharrik gabe eta ikutu beharrik gabe; argazkiak, behar diren manipulazio guztiak eginda irtengo dira tailerretik; eta bezeroaren eskuetan izango dira CD-ean, argazki paperean, posta elektronikoan, industri-karteletan, erakustokietan, eta abar.


Josuren Murgizu Bakaikoa



OZARETA 1, BEHERA
20570 BERGARA
GIPUZKOA

Tf.: 943 76 30 33-FAXA
Eramangarria: 630705688
E-mail: urkandigital@facilnet.es

kontuola...



Antzuolako

jaiak 1999

Ixoane txapelkun 24 orduetan



Antzuolako jaixak 1999

KONTUOLA

Antzuolako
hamabostekarija.
41 zenbakia. Berezia.
1999ko uztailearen 9a.

Azaleko argazkia:
KONTUOLA

Idolaz elkarte, Antzuola

Kazetaria:

Marijo Deogracias

Maketatzailea:

Inaki Iturbe

Erredakzio kontseilua:

Miren Anduaga
Gotzon Iparragirre
Patxi Kortabarría
Jone Larrañaga

Testuen zuzenketak:

Marijo Laskurain
Lierni Legorburu

Telefonoa eta faxa:

943 76 65 08,
Herri ikastetxea.

Ixoane taldea izan da Sarriegi Taldeak lehen aldiz antolatutako 24 orduko Futbito Txapelketako irabazlea. 9 eta 2 menperatu zituzten Ixoaneko Montori, Andres, Inaki, Toli, Ibon, Larrea, Azkarate eta Makik, Mox tabernakoak.

Hemezortzi talde aritu ziren joan den ekainaren 26tik 27ra bitartean txapelketan. Guztietatik gol gutxien jaso izanaren saria Paskualik eraman zuen eta goleatzaile nagu-

siaren saria, hau da, "pitxitxiaren garaikurra", Aitor Gabilondok eskuratu zuen, Zorionak bada, guztioi!



Ixoaneko taldekideak garaikurrarekin.

Esker ona

Joan den asteburuan ospatu ziren Kalebarrengo jaiak, San Pedroak. Eta urtero legez jende dezente aritu zen auzoan egunez zein gauetz. Kalebarrengo Jai Batzordeko kideek adierazi digutenez "dena ondo atera zen eta oso gustura gaude jendearengandik jasotako erantzunagatik". Hori dela eta, honako eskutitza igorri digute, herritarrei eskerrak emateko:

"Kalebarrengo jai batzordian izenian eskerrak emon nahi dotsuegu aurtengo San Pedro jai honek antolatzeke laguntzia emon dozuen auzotarrori, eta bertan parte hartu dozuen danoi. Jai honetan ondo pasatu dozuelakuan, datorren urtera arte".

Kalebarrengo Jai Batzordia

Alkate berria

Mireia Unamuno Unzurrunzaga izendatu zuten joan den uztailearen 3ko udal bazarrean Antzuolako alkate, datozen lau urteotarako. Euskal Herritarrokek, Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Eusko Alkartasunako zinegotziek zuriz bozkatu zuten boto gehien lortu zuen alderdiko hautagaia aukera zuten alkate.



GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatu eta
barnizaketa •


zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teillatuak • Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA Tf. 943 76 60 89

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Biltegia: 943 78 70 40



Z Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

Iñaki Leteren omenez

Domekan, uztailaren 11n, txirrindulari lasterketa izango da LIV. Antzuola Saria. Iñaki Leteren VII. Oroigarria txirrindulari lasterketa. 23 urtez azpiko txirrindularientzat den lasterketa Euskalduna Trofeoeko proba da.

Iñaki Leteren taldeko txirrindulariak irabazi zuen lasterketa, igandean bertan jokatuko da. Aurtengo ere ez da antzuolarrak arikuntza gehien, baina Iñaki Leteren zena gozatu izango du

berri ere Ayastui peñakoek. Lasterketaren berrogeita hamalagarren aldia izango da igandekoa eta Iñaki Leteren zena gozatu izango du.



Egurdiko 12:30ak aldera izango da helmugaratzea.

Berrogeita hamar urte ospatzeko



1949an jaiotakoek kinto bazkaria izan zuten orain dela bi asteburu. Hori dela eta, sekulako bidaia antolatu zuten, eta Bizkaitik zehar ibili ziren egun pasa. Gauean, Antzuolara itzuli zirenean hemen ere afaria egin zuten. Mende erdi betetzen duten urte honetan, zorionak guztiei!

Emilen Castro



Euskal sukaldaritza
Eguneko menua

Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12



Jose Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43



Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tf. 943 76 62 75



Juan Cruz



Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Argazkiak

Bitxitegia
Marrokineria
Erojuak

Herriko plaza 4, ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 66

LEKU-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94

Eguena

15

10:30

Umeendako jolasak plazan, udaleku irekietako begiraleekin.

13:30

Umeen herri bazkaria plazan.

16:00

Umeek prestaturiko ikuskizunak plazan.

17:30

Buruhandiak plazan.

18:30

Txupinazoa, kanpaiak eta txistularien kalejira.

19:30

Meza.

20:15

Oinarin taldearen saioa: umeen ikurrin dantza; udalbatzaren aurrekua; Antzuolako bandera eta ikurrina jasotzea Herriko plazan.

22:30

Kristina eta Amaiarekin dantzaldia Herriko plazan.

24:00

Suzko zezena, plazan.

24:30

Kristina eta Amaia taldearekin dantzaldia Herriko plazan.

Dantzari berriak

Urtero legez udalbatzarrak jaiei hasiera ofiziala emango die aurrekua dantzatzuz. Aurten berezitasun bat izango du, zinetotzi aldaketa egotean dantzari berriak arituko dira eta Herriko plazan.

Ez dute ez besteetan izan duten denbora bera izan udal ordezkariak aurrekua dantzatzeko. Batentzat baino gehiagorentzat lehenengo aldia izango da eguenekoa.

Bost dira dantzari berriak. Azkenengo udal hauteskundeetara aurkeztu direnak, hain zuzen ere.

Euskal Herritarrok alderditik bi dantzari berri izango ditugu Herriko plazan, EAJtik beste bi eta EAtik bakararra. Ordezkarari sozialistarentzat iaz ez baina aurretik tokatu izan zaio aurrekua dantza egitea, beraz honentzat ere ez da izango lehenengo aldia.



Udal ordezkari berriek aurrekua egingo dute..

Salbea jaien hasieran

Herriko eta parroikiko abesbatzek jaien hasierako meza nagusian salbea abestuko dute aurten. Jose Arrueren Salbea hain zuzen ere, Jesus Mari Sagarna organujolearekin.

Baina ez da hori izango abesbatzen ekitaldi bakararra. Zapatuan, mairuaren alardean hartuko dute parte. Oraingoan, Iparragirrek Antzuolari eskaini nahi izan zion pieza abestuko dute herriko bi abesbatzek.



MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Baserriko oilaskoak
Baserriko zekorrak

Kalebarren 1, **ANTZUOLA**
Tf. 943 76 64 34



**OKINDEGIA
GOXOTEGIA
DAZTAKETA
KROISSANTEGIA**

ALTZARTE

Kalebarren 18. 943 76 62 94

**ONDO PASAU
JAI HAUTAN!**

Jai zoriontsuak izan!

Itzar
**LIBURUDENDA
ESTANKOA**

Kalebarren 1, **ANTZUOLA**
Tf. 943 76 60 62

Pilotari gazte eta profesionalak

Eguakitzean eta zapatuan jokatuko dira pilota partiduak

Eguakitzean, gaueko 10:00etan haur, gazte eta afizionatu mailako pilotarien jaialdia jokatuko da herriko pilotalekuan. Zapatuan, 22:30etan, profesionalen txanda izango da. Pilota norgehiagoka guztiak eskuz binakako partiduak izango dira.

Antzuola eta Bergararen arteko desafia izango dugu jaietako zapatuan, pilotalekuan. Baina aurretik, eguakitzean, herriko pilotari gazteak arituko dira lehiatzen.

Eguakitzerako 22:00etatik aurrera hiru partidu antolatu ditu Olalde pilota elkarteak. Haur, gazte eta afizionatu mailako partidu bana jokatuko dituzte, eskuz binaka. Banan banan hauek izango dira aurkariak: Txurruka-Biteri, Agirre eta Errarteren aurka. Gazte mailan, bergarar bat eta hiru nafar arituko dira: Muguruza-Mendiluze, Gorriti eta Ugarteren aurka. Afizionatu mailan eta gau horretako pilota jaialdiari amaiera emateko, Murua-mendiarrak-Ildiakez eta Ubera II-Errasti arituko dira.

PROFESIOALEN TXANDA ZAPATUAN

Antzuola eta Bergarako pilotariak arituko dira zapatuan nor baino nor, Pieda-detako txapela lortu nahian. Antzuolatik Aritz Berraondo eta eta Aitor Elkoro izango dira eta aurrez aurre Etxaniz eta Zezeaga bergararrak izango dituzte.

Dena dela, bi herrien arteko norgehiagoka bigarren partidua izango da. Izan ere, Aspe enpresak beste norgehiagoka bat jarriko du jaialdiari hasiera emateko. Ikusi egin behar Aspek gertatzen duen egitaraua. Ordua, 20:30ak. Ziur zapatu gaueko bi partiduak ikusgarriak izango direla.




Antzuolako eskuz binakako txapelketako finala.



Haritz Berraondo

Antzuolarra
23 urte bete berri ditu
uztailaren 4an



Aitor Elkoro

Elgetarra
31 urte ditu.
Abuztuan beteko ditu 32



Jokin Etxaniz

Bergararra
29 urte bete zituen
apirilean



Jose Mari Zezeaga

Uberarra
37 urte bete zituen
otsailean



**MUEBLES
IGEA**

Zorionak antzuolarrok!

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA

• Apainketarako eta industriarako pinturak •
• Paper margotuak •
• Mokatetako eta tapizatuak •

Eguakitza

16

10:00

Txistularien kalejira.

10:55

Txupinazoa.

11:00-14:00

Umeendako jolas parkea,
Herriko plazan.

11:30

Meza nagusia.

12:30

Andoni Egaña eta Sebastian
Lizaso Zurrategin. Salda.

16:00-19:00

Umeendako jolas parkea
Herriko plazan.

19:00

Elkartasun festa Herriko plazan.
Batzen den dirua Brasilerako
izango da, Juan Antoniok bideratu-
tako proiektua bultzatzeko.
Bertsolari eta Trikililariak alaitua.

22:00

Pilota partiduak
pilotalekuan.

23:00

Sorbeltz
taldearekin dantzaldia, plazan.

23:00

Ratos de Porao eta Ratas
Beheko auzoko kirol eremuan.

Ibon eta Aitziber Gezalaga erromerian

Ezagunak dira herrian Gezalaga anai-arrebak, Ibon eta Aitziber. Urteak daramatzate trikitia jotzen jaietan, ezkontzetan, herri bazkarietan eta antzekoetan. Eguakitzean ere eurak izango dira Elkartasun jaia alaitzeaz arduratuko direnak, Ainhoa Agirreazaldegí bertsolari bergararra eta Sustrai Kolina urruñarrarekin batera.

Noiz hasi zineten jotzen?

Honezkero dozena bat urte izango da elkarrekin jotzen hasi giñala. Lehenengo aldiz Araotzeko Trinidadetan.

Zenbat erromeria alaitu dituzue?

Aurten 35-40 bittartian. Hasi giñanetik 300-400 bat.

Nondik datorkizue afizioa?

Ni (Ibon) panderua jotzen hasi nitzan txikitan eta gero Epelarrekin soiñua ikasten hasi nitzan. Hamahiru urte die soiñua jotzen hasi nitzala.

Ni, (Aitziber), anaia soiñua jotzen hasi zanian hasi nitzan panderuakin. Hamar-hamaika urte eukiko nittuan.

Baiña merito haundixena Balentin Aperribairena da.

Anai-arrebak izateak abantailak dituzue?

Gehixen bat ensaiatzeko orduan. Erreztasuna emoten dotsu horrek. Edozein momentutan garajera jun eta listo.

Baiña, dana dala, diskutidu be egi-tten dogu.



Aitziber eta Ibon, dozena bat urte erromerian.

Herrian jotzea atsegin duzue?

Bai, gustura jotzen dogu. Hasieran, lotsatu egitten giñan. Oin, berriz, herrian jotzeko askotan deitzen doskue.

Antzuolan trikiti zaleak gara?

Asko eztoz uste. Beste herri batzutan zale gehixao egoten da, baiña gabe ko erromerixak asko jetsi die. Giro hobia egoten da boda eta bazkaietan erromerixetan baiño. Jende gutxi egitten dau dantza trikitixa.

Zein da zuen gustuko trikitilaria?

Kepa Junkera, soiñua jotzen ikusgarria da. Laja be bai; zaharretan Iturbe.

Zer gehituko zeniekete jaiei?

Zezen txikixak mutikuendako. Domeka arratsaldian beste zeozer ipiñiko neuke, ezta ezer egoten eta. ■



HIRU AROSZTEGIA

Antigua auzoa 8 20577 ANTZUOLA Tf.: 943 76 63 59

ATEAK
•
LEHIOAK
•
ZORUAK
•

HORMA ARMAIRUAK

Ondo
pasau jaixak!



JENA AUTO

2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

Arrasate Pressen eta Berrigararen, 2. eskuko autoen aldizkaria.

8. zenbakia. 1999ko uztaila.

Merkataritza teknikaria: Nerea Lazpiur. Diseinua eta maketazioa: Iñaki Iturbe eta Maddi Trubxuelo.

Tirada: 11.500 ale.

Berrigara Berrigarako Aldizkaria

Arrasate P R E S S A



SAN MARTIN KARROZERIAK

Autoaren konponketa
orokorrean

San Juan Auzoa:
Barrutixiki pabiloiak, 1
Tel.: 943 76 07 97
Mugikorra: 608 77 11 83
20570 BERGARA

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

DIMAS LARRAÑAGA


Motorrak, bizikletak,
basorako makineria arina

2. eskuko motorrak

Amillaga, 27
Industri gunea

Tel.: 943 76 16 18
20570 BERGARA

Autoa puntuan jarri beharra



Gidariek, uda partean, auto-mobila ohi baino gehiago erabiltzen dute. Bidaia luzeak egiteko sasoia izaten da eta, beraz, behar beharrezkoa da autoa puntuan jar-tzea.

Urte guztian autoa zain-tzen badugu ez da inolako arazorik izan-go, baina badaezpada kome-nigarria izaten da errepidera irten baino lehen erroberak, frenoak, olioak, filtroak eta direkzioa aztertzea. Ura eta olioak kontrolatzea fun-tsezkoa da. Honako hauek dira autoaren azterketa sako-na egiteko, kontuan izan behar diren faktoreak:

- Kanpoko prestaketa: Dokumentazioa (zirkulazio baimena eta IAT-ITVko txarte-

la). Matrikula plakak irakur-garriak izatea. Atzerako ispiluak, lohi-babesak eta haizetako-garbigailuak egoera onean egotea.

- Karrozeria: Kabina, ateak, kristalak, haizetakoa, leihoak, errobera pasoak eta aletak ondo dauden ikusi.

- Barruko prestaketa: Gerrikoen eta engantxeen egoera aztertu. Jarlekuak, barruko atzerako ispiluak eta bestelako elementuekin inola-ko arazorik dagoen ikusi.

- Seinalizazioa: Bonbila guz-tien funtzionamendua egiazta-tu, intermitenteetatik hasi eta aberien indikadoreak bitarteko denak. Erreflektanteak eta klaxona ere ondo dauden egiaztatu.

- Argiztapena: Aurreko faro-en, (argi luzeak eta laburrak), ohiko argiztapenaren, behe lainoaren eta atzeko matriku-laren reglajearen kontrola.

- Frenoak: Rodillo bankoan frenoeraginkortasuna aztertu. Balazta ekipoko zir-kuitu eta organoen ikuskape-na.


- Direkzioa: Direkzioko ele-mentu guztien (kaxa, errotu-lak, amortiguadoreak, artikula-zioak etabar) egoera egiazta-tu, lasaiera eta balizko kalteak prebenitzeko. Erroberen lerra-tzea egokia den ikusi.

- Ardatzak eta suspentsioa: erroberen errodamentuak, amortiguadoreak, malgukiak eta hauen ainguraketak, tortsio barra eta egonkorgailua-ren ikuskapena.

- Pneumatikoen dimentsioa eta egoera, ordezeko errobe-

rak eta lllantak. Erroberak gastatuta dauden edo ez begiratu behar da lehenbizi. Erroberen dibujoa gastatuta egotea zigortuta dago. Erroberak behar den bezala egon behar dira eta presio egokia izan behar dute, segurtasun handiagoa izate-ko. Bestalde, gaizki lerratuta baldin badaude, errobera barrutik edo kanpotik gastatu-ko da. Ondo dagoen errobera batek 40.000 kilometro inguru aguantatzen du; gaizki baldin badago, berriz, 25.000 inguru. Suspentsioa zaindu beharra dago, bestela autoak egon-kortasuna galtzen du.

- Bastidorea, motorra eta transmisioa: Txasisa, kanbio kaxa eta semiejeak. Erregariaren depositoa, tapoia eta kondukzioak. Zaraten maila egiaztatu. Eskapea eta isilgailua. Azkenik, kutsasura emisioak ere neurtu behar dira.



ARABA Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitar

Rufino Muñoz

**Etxeberrieta 3
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 70**

MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA
AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tf. 943 76 09 30

Peugeot 406 Break TD 2.1				*7
Peugeot 406 SRDT 1.9			AG, ABS	*7
Peugeot 106 Sketch 1.1				*4
Peugeot 106 L.Beach 1.1				*4
Peugeot 405 GRD				*2
Peugeot 605 SVI				*3
Peugeot 205 GRD				*2
Renault 21 GTX			AG	*3
Renault 19 Chamade D				*3

BERRIA GARAJEA. Amillaga 49. Bergara. Tf. 943 76 22 43

Ford Escort RS Turbo	SS-AJ	1990	Autoblock, EBD, 90.000 Km	*3
Peugeot 309 GTX 1.9	SS-AK	1991	LD, KE, IZ, LKA	*3
Renault Supercinco GTX	SS-AB	1988	KE, IZ, KA, AH	*2
Fiat Tipo 1.6 AGT	SS-AK	1991	KE, IZ, LK, LD	*3
Ford Orion 1.6 D	SS-AH	1989		*2
Ford Sierra 2.0 D	BI-AL	1986	LD, KE, IZ	*1

GURTZAIN GARAJEA. Almirante Bikuña z/g. Legazpi. Tf. 943 73 00 92 / 629 26 98 99

Land Rover Luzea			Kablestante mekanikoarekin, Motore berria	*3
Roller Karabana			Erabili gabe	*4
VW Eskarabajoa		1962	Arteztutako motorea	*3
Toyota Land Cruiser		1990	Motore berria, Urte bateko garantia	*5
Nissan Patrol		1989	Zapai garaia	*3
Mercedes 300 D			Oso ona	*3

ION AUTOAK. Amillaga 36. Bergara. Tf. 943 76 47 49

Citroen Saxo D	M-VZ	1998	LD, KE, IZ, AG, 5 ate	*5
Discovery 2.5 TDI Luxua		1993	AG, SE bikoitza, 5 ate	*7
Citroen Evasion		1996	AG, Urte bateko garantia osoa	*7
Citroen XSara 1.9 TD SX 5 ate		1998	KL, Urte bateko garantia osoa	*7

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagnak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak
 HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako
 argiak LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak

*1: 300.000 PTara arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000 PTAtik aurrera

GARAJE MURILLO

Mekanika orokorra

 Leizeaga 4 • Bergara
 Tf. 943 76 13 84


Garraioaren mundua


 Garibai Etorbidea, 5
 Tel.: 943 79 22 96
 ARRASATE

GIDARI ESKOLA
 ARRASATE ARETXABAETA

 Basabe Poligonoa F0-7 eraikuntza
 Tel.: 943 79 64 50
 ARETXABAETA

 Automobilaren
 karburazio eta
 elektronika

 Uribarri etorbidea 16.
 Arrasate. 943 79 73 58

MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA

KANPAZAR TAILERRAK. Bizkaia etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 943 79 41 98

Fiat Uno D	SS-AF	1989	IK, 3 ate	kontsultatu
Peugeot 309 GR	SS-Z		IK	Kontsultatu
Fiat Tipo	SS-AG	1990	IK, IZ, KE, 5 ate	Kontsultatu
Citroen C-15	SS-AG	1990	IK	Kontsultatu

MECA TAILERRAK. San Andres 8. Arrasate. Tf. 943 71 24 72

Ford Escort 1.6	B-LF	1990	3 ate	*1
Renault Megane Alize 1.6	B-TX	1998	AG, IK, IZ	*6
Citroen AX	SS-AC	1988		*2
BMW 316	SS-AH	1990		*4
Renault Trafic 1.4 Combi	SS-AY	1997	Gainaltzatua	*6
Ford Mondeo 2.0 Ghia	SS-AP	1993	4 ate	*5

MUGARRI. Araba etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 943 79 07 44

Ford Fiesta DI		1997		*
Nissan Patrol 4x4 DI		1990		*
Mitsubishi GLS TDI		1998		*
Ford Maverik 4x4 GL TDI		1994		*
Ford Mondeo TDI		1996		*
Ford Mondeo TDI		1997		*
Ford Fiesta DI		1998		*
Ford Escort 1.4 I		1998		*
Ford Focus Ghia 1.6		1999		*
Ford Mondeo V6 24l		1997		*
Ford Mondeo V6 24l		1995		*

*40 auto baino gehiago 200.000 eta 3.000.000 pta artean. Zatoz ikustera.

OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara. Tf. 943 76 47 74

Opel Vectra	Hainbat	92..99		Negoiazteko
Opel Omega	Hainbat	92..99		Negoiazteko
Opel Astra	Hainbat	92..99		Negoiazteko
Montego 2.0 I LXI		1992		Negoiazteko
Citroen ZX 1.9 D 5 ate		1997		Negoiazteko
Renault Clio 1.9 D		1996		Negoiazteko
Peugeot 306 Stile 1.6		1996		Negoiazteko

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagnak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak
 HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak

*1: 300.000 PTAr arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000 PTatik aurrera

JASO GARAJEA

Autoen konponketa orokorra

Amillaga 1, 4 pabilioia.
Bergara. Tf. 943 76 33 00

LAGUN GARAJEA

Javier Gallastegi Arenaza Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- IAT/ITVrako prestaketa

ORAIN HELBIDE BERRIA!
Santalaitz 3. Beragara. Tf. 943 76 11 20

Garajeko mandoen kopiak egiten ditugu!

Txorno
Auto-errekabioak

Ibargarai 33, beheka. BERGARA
943 76 29 95

Renault Arrasaten, Ford Oñatin eta

Aurtengoa azken urteotako onena izango da auto salmentari dagokionez. Deba Garaian, behintzat, horrela izango da, lehen lau hileko datuak hori erakusten baitute.

USI erakundeak Estatu Espainolean matrikulatutako autoen datuak jasotzen ditu. Erakunde independentea da eta marka guztietako auto saltzaileei banatzen dizkie datuak. Dena Autok Deba Garaian azken 10 urteotan matrikulatu diren autoei buruzko datuak eskuratu ditu. Herri guztietakoak lortu ditugu, Elgetakoak izan ezik. Beraz, Deba Garaia ari buruz ari garenean, kontuan izan Elgetako datuak jasota ez daudela.

1999 urte bikaina

Aurtengoa azken hamarkadako onena izango da autoen salmentari dagokionez. Urte hasieratik maitatza arteko datuak baino ez ditugu, baina urteko lehen bost hiletako joera ikusita, esan dezakegu 1989ko datuak gairi daitezkeela.

1989 izan da orain arte urterik onena autoen salmentari dagokionez. 2.038 automobil saldu ziren Deba Garaian osoan urte horretan. Orduetik hona gora beherak izan dira, baina beti ere 1989. urtean

saldu zen auto kopuruaren azpitik. Iaz izan ezik, beste urte guztietan, 1990. urtetik 1997ra arte, 1.500 automobil baino gutxiago saldu dira Deba Garaian.

Iazkoa urte oso ona izan zen, azken hamar urteotako bigarren onena. 1.807 automobil saldu ziren, hamarkadako batzbestekoa (1.456 auto) baino nabarmen gehiago.

Autoen salmentaren merkatuak iaz erakutsitako joera errepikatzen ari da aurtengo eta urte amaierarako marka guztiak hautsiko direla esan dezakegu. Lehen lau hilekoan 764 auto saldu dira Deba Garaian. Kontuan izaten badugu maiatza eta ekaina, batez ere, eta urte bukaerakoak hilabete onak izan ohi direla, aurreikus daiteke 1989. urteko marka (2.038 auto) hautsiko dela aurtengo maiatzean, esaterako, 209 automobil saldu dira Deba Garaian.

Dieselak eta gasolinakoak parean

Azken urteotan nabarmen gora egin du diesel motordun autoen salmentak. Hamarkada hasieran askoz ere gehiago ziren gasolinakoak, baina gaur egun parekatuta dago gasolinarekin eta gasolioarekin dabilzan autoen salmenta. Aurtengo lehen lau hilekoan, gasolinarekin dabilzan 387




ARRASATE KONPONKETAK



Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- LUKAS Autoinjekzio zerbitzua
- HONDA eta LADA autoen salmenta

Saldizpe kalea, 5 • Arrasate •
Tel.: 943 79 95 41



AUTO DESGUACES BERGARA

Tel.: 943 76 35 47 (desguazekoa) • 943 79 76 33 (etxekoa)

BIGARREN ESKUKO PIEZAK
PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
GRUA ZERBITZUA

LENIZ AUTOESKOLA

BAIMENAK

A1 - A - B - BTP - C1 - C - EC - D1 - DE

ESKORIATZA
Arana, 13
Tel.: 943 71 41 86

ARRASATE
Aldai, 9
Tel.: 943 79 46 04
Faxa: 943 77 01 86

Opel Bergaran, markarik salduenak



auto saldu dira eta beste 377 gasoil motordunak.

Diesel motordun autoen salmentaren gorakadaren arrazoi nagusia da era honetako autoen motorrak asko hobetu direla. Ikusi besterik ez dago orain dela hamar urteko diesel motordun auto bat eta gaur egungo beste bat.

Teknologiaren aurrerapeanak, beraz, ia-ia gasolinarekin dabiltzanen parean jarri ditu dieselak. Bestetik, azkenaldian gasolioaren prezioak gora egin badu ere, gaur egun oraindik ere gasolina baino merkeagoa da. Dieselak beste autoak baino zertxobait garestiagoak dira, baina errepidean asko ibiltzen denarentzat merkeagoa da diesela bestea baino.

Ohiko markak nagusi

Renault, Ford, Citroen eta Opel markako autoak dira salduenak Deba Garaian. Betiko markak dira eta, horregatik, ezagunenak. Alde batetik, antzinasuna eta, bestetik, behe eta erdi mailako segmentuetan, auto eskaintza zabalena izatea dira salduenak izateko arrazoi nagusiak.

Azpimaragarria da, Renault izatea Arrasaten auto gehien saltzen duen marka, Ford izatea Oñatin gehien saltzen duena eta Opel izatea Bergaran gehien saltzen duena. Marka hauen kontseionario nagusiak Arrasaten, Oñatin eta Bergaran daude: Renault-ena Arrasaten (Meca), Ford-ena Oñatin (Amets) eta

Opel-ena Bergaran (Ola).

VW, Seat eta Audi autoak ere asko saltzen dira Deba Garaian. Seat betiko marka dugu; VWek, berriz, salmenta onak izan ditu beti, guretzat marka "berriagoa" izan arren; bestalde, azken aldiran indarrean dagoena Audi da. Marka honetako gero eta auto gehiago ikusten dira, goi mailako autoen segmentokoak izan arren. Urte onak bizi ditugu ekonomiari dagokionez: langabeziak behera egin du, interes tipoak sekula baino baxuago daude eta inflazioari eutsi egin zaio. Koiuntura ekonomiko onak kontsumoa handitzea ekarri du. Horregatik, aurtengo urte bikaina izango da autoen salmentari dagokionez: sekula ezagutu den onena.

Auto salmenta 1999ko lehen lau hilekoak

	Bergara	Antzuola	Oñati	Eskoriatza	Aretxabaleta	Arrasate	Deba Garaia
Renault	24	3	15	8	6	72	128
Ford	18	3	30	11	13	52	127
Citroen	37	6	15	7	9	45	119
Opel	40	3	12	3	7	50	115
VW	10	3	10	6	13	23	65
Peugeot	9	2	6	3	8	18	46
Seat	12	0	5	1	8	18	44
Audi	8	2	3	1	2	9	25
Nissan	6	1	0	2	2	11	22
Hyundai	1	1	2	1	1	6	12
Fiat	2	0	0	0	0	4	6
BMW	2	1	1	0	0	0	4
Mercedes	2	0	1	0	0	1	4
Rover	0	0	0	0	2	0	2
Beste batzuk	11	1	3	1	4	25	45
Guztira	182	26	103	44	75	334	764


ALMACENES LASCAR S.L.


Amillaga 32, BERGARA.
 943 76 10 38 / 76 19 11. Faxe 943 76 59 60.

Olio aldaketa • Errubera aldaketa

Auto garbiketa: kanpotik eta barrutik

Errebisio orokorra:

frenoak, bujiak, korreak...



35.000
IRAKURLE

Berrigara **Arrasate**

DENA AUTO

2. ESKUKO
AUTOMOBILEN GIDA

Deba Garaiko auto saltzaileok! Aukeran

dituzuen erabilitako autoen eskaintza, **Bergara, Antzuola eta**

Arrasateko ia etxe guztietara helduko da. **35.000 inguru irakurlek** izango dute Dena Autoren berri.

Dena Auto, Deba Garaiko 2. eskuko automobilen gida, berriz ere zuekin, 1999an **eskaintza berrieekin** dator.

Kontratazioa

Nerea Lazpiur

Arrasate Press
Otalora kalea 31
20500 Arrasate.
Gipuzkoa

Telefonoak:

943 76 03 97

943 71 25 11

Faxak:

943 76 29 77

943 71 23 95

Berrigara

Errotalde jauregia z/g
20570 Bergara.
Gipuzkoa

Auto saltzaileok ez duzue hau baino aukera hoberik izango zuen berri emateko!

Ondorengo aleak urriaren 15ean eta azaroaren 26an argitaratuko dira

1999rako eskaintza berezia egin nahi dizuegu.

Lerroaren eta publizitate moduloaren prezioak hauexek izango dira:

LERROA: 1.300 pta

PUBLIZITATE MODULOA: 3.000 pta

Sei egin eta bost ordaindu:

Bost lerro kontratatzen badituzu, seigarrena doan jarriko dizugu.

Eta urte osorako publizitatea kontratatuz gero, hau da, sei intserzio eginez gero (edozein modulaje), bost bakarrik kobratuko dizkizugu.

Elkartasun jaia bertsoan

Aurten ere Brasilerako Elkartasun jaia ospatuko da herriko jaietan. Juan Antonio Lizarraldekan Brasileko Canudos herrian koordinatzen duen lanari laguntzeko izango da biltzen den dirua, baina aurten, gainera, bertsolariak ere jardungo dute Herriko plazan. Ainhoa Agirreazaldegi bergararra eta Sustrai Koli-

na urruñara arituko dira bertsoan arratsalde partean.

Eguerdi partea ere bertso doinuek alaituko dute. Izan ere, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso gonbidatu dituzte jai batzordekoek herrira. Hauek, Zurralegiko plazan arituko dira, entzuleek salda beroa hartzen duten bitartean.



Arratsaldeko 19:00etan ekingo zaio Elkartasun jaiari.



Gazteentzako kontzertua Beheko auzoan

Eguakitzan izan da urte askotan Antzuolako jaietan "gazteen eguna", gazte doinuetarako hautatu izan baita. Brasiletik etorritako Ratos de Porao edo RDP taldea arituko da Beheko auzoko kirol pista gorrian.

Ratos de Porao edo RDP taldea aski ezaguna dute hardcore musika atsegin dutenek, baina garai batean eta azkenaldian berriro punk-rock doinuek jotzen dituzte brasildarrek. Izan ere, Exploited eta antzeko taldeen jarraitzaileak dira.

Lau kidek osatzen dute taldea: "Gordo" abeslariak, "Jão" k, "Boka" k, eta "Pica-Pau" k. Hemezortzi urte daramatzate musika kontuetan eta eguakitzean Antzuolan izango dira.

Baina RDP taldekoak ez dira bakarrik egongo. Orain dela bi asteburu Elorrijoan jo zuten Ratas taldekoak izango dituzte lagun. Dena dela, bide luzeagoa egin zuten hara heltzeko. Rataseko kideak Kanariar irletatik datoz eta. Kontzertua 23:00etan hasiko da.



Baserritarrak eta kaletarrak

Jaietan ez baina jai egun batean atera zuten soka-tira txapelketako argazki hau. Herriko apaizek antolatu eta hain ezagunak izan diren desafioetako bat zen: baserritarrak kaletarren aurka.

Argazkian agertzen direnak, aurretik hasita, Pedro Etxaniz, Mateo Aranguren eta Lapatzako "Rubio" dira.

Ondo pasau danok jaietan!



Gabilondo-Arregi
harategia

ABELGORRI-OKELAREN EUSKO LABELA

Kalebarren 14 ANTZUOLA Tf. 943 76 62 90

Ainhoa
drogeria

ONDO PASAU
JAIETAN!

Kalebarren 13, ANTZUOLA

Zapatua

17

10:00

Txistularien kalejira.

11:00

Leioako musika bandaren kalejira.

11:30

Txan magoaren saioa, Herriko plazan

12:30

Leioako musika bandaren emanaldia, Zurrategin.

18:00

Mairuaren alardea, plazan.

19:00

Oinarin taldearen dantza saioa, plazan.

22:30

Pilota partiduak pilotalekuan.

23:00

Furundarekin dantzaldia, plazan.

Mairuaren alardea

Zapatua, duda barik, mairuaren eguna da Piedadetako jaietan. Aurten ere antzularrek garai batean lortutako garaipena gogoratuko dugu. 18:00etan izango da alardea. Baina aurretik frontoetik jeitsiko dira herriko txistulariak, alardeko danborreroak, eskopetariak, kainoidunak eta nola ez kapitainak eta mairua.

Herrian zehar kalejira egingo dute eta mairua "erakutsiko" dute alardeko partaideek. Gora eta behera ibili ondoren Herriko plazan aitortu eragingo dio kapitanak mairuari aberria eta ondoren, lehengo eskopetariak eta gero kainoidunek armak sutuko dituzte.

DANTZA SAIOA

Oinarin dantza taldeko neska-mutikoek ere urtero betetzen duten dantza saioa eskainiko dute zapatuan, mairuaren alardearen ostean. Mutilek Antzuolako dantzak eskainiko dituzte.



18:00etan mairua eta 19:00etan dantzariak.

A
Z
A
R
G
A
Z
K
I



Orain dela mende erdi

Orain dela berrogeita hamar bat urte Santos Urriategi, Bittor Estenaga, Faustino Garitano eta Agustín Arin izan ziren mairuaren alardeko kainodunak. Hauek ere dotore asko jantzi ziren Piedadetako egun handian. Asto gainean dagoena ezezaguna da, baina astoari eusten dagoena Paulino Lete. Orduan ere, ikuskizun bikaina omen zen mairuaren alardea. Elizako horman irakurri daitekeenez, gaur egun Herriko plaza dena, garai hartan Barren Kalea zen.

Jai zoriontsuak herritar guztioi!

Jai zoriontsuak herritar guztioi!

ANTZUOLAKO BASERRIETAKO
HARAGI
NATURAL ETA ONENAK
Juan Jose AGIRRE

Kalebarren 1, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 84



AITZ-GARBI
taberna-jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak. Bazkariak eta afariak

Tf. 943 78 70 51

Mende erdi ostean herrira itzuli da

Nikolas Larrañaga Txiletik itzuli berri da herriko jaietara

Nikolas Larrañaga orain dela 52 urte joan zen Antzuolatik. Santiago de Txilen bizi izan da orduantzetik eta orain dela astebete bere jaioterrira itzuli da, Lapatza baserrira. Jakin dugunez Mairuaren alardean parte hartzeko gogo dauka eta hori aitzaki bezela hartuta berarekin berbetan jardun dugu.

Nola aurkitu duzu Antzuola?

Berrogeita hamabi urtez itzultzeko gogoia izan dut eta orain hemen nagoela herrira erabat aldaturik aurkitu dut. Eta hori abisatu egin zidatela! Baina Maristak faltan bota ditut.

Horrelakoa izango zela uste zenuen?

Ez. Ikusi izan ez banu ez nukeen sinistuko. Herenegun bide ertzean egon nintzen eta bost minutuan 60 bat auto pasatu ziren. Orain dela 52 urte bi kamioi zahar eta bi auto baino ez zeuden.

Nolatan egin zenuen alde?

Hemendik alde egin nuenean soldadutza egin behar izan nuen, baina ostean herrira itzuli nintzen. Dena dela, niri beti gustatu izan zait munduan zehar ibiltzea eta alde egitea erabaki nuen. Soldadutza Melillan egin nuen. Lau urte egin nituen han.

Soldadutza Txilera joateko egin behar izan nuen. Soldadutza egin barik ezin nintzen joan.

Nola bizi izan zara Txilen?

“Bolitxe” bat nuen, barazki biltegi bat. Egia esan zortea izan dut. Seme zora garriak ditut eta hori da pertsona barentzako loteria saririk onena, seme-alaba onak izatea eta burua sano izatea.

Eta egoera politikoa nola bizi izan duzu?

Politikaz aritzea ez dut gustuko. Leku guztietan daude arazoak eta ahal dela saihesten saiatu behar dugu. Orain

arazoa ur falta da. Lehendakari berriak gauzak aldatzeko asmoa du.

Garrantzitsua izan da zurentzat Antzuolara itzultzea?

Egia esateko sekulako goga nuen, baina bizi-tzan garrantzitsuena osasuna izatea da. Hori izanez gero, harro sentitzen da bat.


Zer eramango duzu Antzuolatik?

Garai batean hartzen nuen metal ura eramango nuke, edo ardo bota!

Antzuolako irudiekin bideo zinta bat eramango dut nire semeek eta loibek nire jaioterrira ikus dezaten.

Mairuaren alardean parte hartu nahi duzula jakin dugu?

Hemendik joan nintzen urte berean hartu nuen parte azkenengo aldiz. Orduan eskopeteroa izan nintzen. Herriaren alde beti egin behar da zerbait eta niri beti gustatu izan zait herrian egiten diren ekintzetan parte hartzea. Horregatik aurten ere parte hartzeko prest nago. Eurek nahi dutena egingo dut. Berdin dit eskopetero, kainoidun...



Nikolas Larrañaga Lapatzara itzuli da.

Gogoratzen duzu baina alardea?

— Beno urte asko dira, baina bai. Egia esan gauza asko gogoratzen ditut. Euskaraz han ez dut egin emazteak ez zekielako, baina ez zait ahaztu. Gauza bera gertatzen zait baserrien izenekin ere; urrutien dauden izenak ere gogoa ditut. ■

■ ■ ■
Garai batean hartzen nuen metal hura eramango nuke Txilera, edo ardo bota!
■ ■ ■

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

*Jaixetan...
Ondo pasau!*

TXOMIN GARAJEA

ad

Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- IAT/ITVrako prestaketa

Lizarraga auzoa. Antzuola. Tf. 943 78 70 77

Domeka

18

11:00

Euskal presoen eskulanen erakusketa, plazan.

11:00

Trisquele galiziar dantza eskolaren kalejira.

12:30

Galiziako dantzak eta gaiten kontzertua, herriko plazan. Galiziako gastronomia dastatzeko aukera, plazan.

13:00

Lagunak txarangaren kalejira, Errekaldetik hasita.

14:30

Herri bazkaria, herriko plazan

17:30

Galiziako dantzak, plazan.

19:00

Kale animazioa, Zirko Ttipia taldearekin.

20:00

Lagunak txarangarekin kalejira.

22:15

Suan Blai taldea, herriko plazan.

02:15

Lagunak txarangarekin jaien amaiera.



Donostiako galiziar etxeko kideak arituko dira herrian.

Galiziarren eguna jaietan

Beste herrialdeetako jaiak ezagutzeko aukera izango dugu domekan. Izan ere, Galiziako folkloreak eta gastronomiaz gozatzeko parada izango dugu eta jaietako azkenengo egunean.

Escola de Gaitas e Danzas Galegas Trisquele izango da Antzuolan egun horretan. Donostiako galiziarren etxeko kideak dira eta egun osoan zehar arituko dira herrian. Goizeko 11:00etan kalejira

ri ekingo diote eta eguerdiko 12:30etan dantza saioa eskainiko dute herriko plazan. Horrez gain, galiziar jakiak dastatzeko aukera ere izango da: olagarroa, Padrongo piparrak, enpanada, lakoia eta albariñoa. Horrez gain, bazkalostean queimada egingo dute eta arratsalde partean, 17:30etatik aurrera, dantza saioa eskainiko dute.

Zirko Ttipia

Zirko Ttipia dute izena eta Kiti Cancel eta Patxi Erro iruñarrek osatzen dute. Malabarrekin eta pailazo jantzita ari dira azkenengo zazpi urteetan eta domekan euren hirugarren ikuskizuna erakutsiko dute herriko kaleetan. "Txalozirkus" emankizuna haur eta helduentzako kale antzerkia da, eta eurek diotenez, "Zirko Berrian murgiltzen den kale antzerkia da. Musika, malabareak, parte hartzea, dantza eta barrea". Pibo eta Zelenina Plefka pertsonaiak arratsaldeko 19:00etatik aurrera ikusi ahal izango ditugu plazan.



Igor eta Txomin C.B.

Margoak orokorrean

ANTZUOLA 609 157 131

BERGARA 609 150 164

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

Herri bazkaria AABk antolatua

Amnistiaren Aldeko Batzordea, AAB, da azkenengo urteetan herri bazkaria antolatzeaz arduratzen dena. Aurten ere horixe egingo du Antzuolako AABk. Lagunak txarangak alaituriko herri bazkaria izango da aurtengoa. Txartelak dagoeneko salgai daude herriko tabernetan eta Gaztetxean. Gogoratu aurrez erosteaz antolatzaileek jakin dezaten zenbat jende elkartuko den plazan.

ERAKUSKETA

Euskal presoek egindako eskulanean erakusketa ere antolatu dute domekarako. Herriko plazan izango da eta goizeko 11:00etan irekiko da. Hainbat presok egindako lanak ikusi ahal izango dira: bitxiak, margoak eta abar. Erakusketa eguerdi partean bakarrik egongo da, beraz, presoek egindako lanak ikusteko, Herriko plazara gerturatu behar, eguerdi aldera arte.



Euskal presoak gogoan jaietan


Domekan euskal presoek eskulanean egongo dira erakusgai Herriko plazan, baina ez da hori izango euskal presoak gogoratzeko jaietan egingo den ekitaldi bakarra. Euskal Presoak Euskal Herrira Antzuolako Plataformak hainbat ekitaldi antolatu ditu eguakitzera.

luz puxikak izan ziren. Euskal Presoak Euskal Herrira zioten ehundaka papertxo lotu zizkieten puxika mordoska bati eta airera bota zituzten Euskal Presoak Euskal Herrira Antzuolako Plataformako kideek. Aurtengo ere beste ekitaldi bat prestatu dute.



Jexus Etxeberria

Aguazilla



Jaietan be lan egitten dozu?

Lana-lana ez, baiña giltzak dauzkatelako eta txepleruak bota bihar dittutelako, beti dago zeoze egitteko. Dana dala, ez naiz aguazil moduan ibiltzen kalian. Zapatuan mairuaren alardian egitten dot lana, baiña aguazil bezela ez.

Zelako lana izeten da?

Txepleruak bota, danak esnatuaz, eta gero egitarauaren arabera lagundu, biherbada. Suzko zezena montatzen be laguntzen dot. Azkenengo txupinazua be neuk botatzen dot.

Zer da jaietan tokau jatzun gauzarik kuriosuena?

Aguazil bezela danetik, baiña bestela... Jentiakin izeten zan lehen tira-biria kaliak garbitzerakuan, txirindulari lasterketia jaietako domekan izeten zanian, orduan bai izeten zala zirkua. Lasterketia atzeratu egin bihar izeten zan, jendia bidetik ezin giñualako kendu.

Jaietatik zer dozu gustukoen?

Egoten dan girua. Lagunekin elkartu eta kaleko giruaz disfrutatzia.

Eta egunik onena, zein da?

Eguena. Bertako jendia egoten dalako eta kanpoko gutxi.

SURPE
taberna

TRAGO BAT
hartzeko tokirik
APROPOSENA

Herriko plaza 2, ANTZUOLA
943 76 64 97

- PINTXOAK
- BOKATAK
- KAZUELITAK

Kalebarren 17, ANTZUOLA
943 78 70 68

LARREA
TABERNA

Jaietan ere Pollero, Eltzikorta eta EUSKAL PRESOEKIN BAT!

GOIZPER

Transmisioak

Enbrageak, balaztak eta balazta-enbrage mekaniko, pneumatiko, elektromagnetiko eta hidraulikoak.

Espeka globika, lau eta zilindrikadun etenakako biragailuak. Espeka bereziak.

MATABI

Ihinztargailuak


Nekazaritzan, lorategietan, industrian eta etxean tratamendua egiteko ihinztargailu eta hautseztagailuak.

FABRIKAZIOA

Antigua auzoa 4
20577 Antzuola (Gipuzkoa)
211 Posta kutxatila 20570 Bergara

GOIZPER KOOP. ELK.

Tf. 943 78 60 00
Telexa 38856 GOIS-E
Faxa 943 76 60 08-943 78 70 95



MATZ-ERREKA

Zorionak
jaietan!

Berotan estanpaturiko torlojugintza berezia

Plastiko eraldakuntza injekzio bidez

Ate eta pertsianak zabaltzeko motorreduktoreen fabrikazioa

Ibarreta z/g 20577 Antzuola
Tf. 943 78 60 09 Faxa 943 76 63 75



elay

Taldea

elayINDUSTRIAL

TROK**elay**

SEYTRA

elay-DEUTSCHLAND


Balzers-Elay

celay S.A. C.V.

Lizarragako hiribidea z/g
20577 ANTZUOLA (Gipuzkoa)
Tf. 943 76 61 00
Faxa 943 76 62 62

Julen Narbaiza

Bedelkarreko presidentea



Bedelkar herriko dendari, ostalari eta zerbitzuen elkarteak bost urte betetzen ditu aurten. Bergarako komertzioaren interesak defenditzeko sortu zen Bedelkar eta gaur egun 150 denda, taberna eta zerbitzu biltzen ditu. Joan zen urteko martxotik Julen Narbaiza dugu Bedelkarreko presidentea eta herriko komertzioaren egoeraren inguruan berarekin hizketan izan gara.

Elkarteak bost urte bete ondoren, orain arte egindako lanaren zein balorazio egingo zenuke?

E. Superfizie handiei aurre egiteko eta herriko komertzio txikiak defenditzeko helburuarekin sortu zen Bedelkar. Gauza berria izan zen elkartearen sortzea, herriko komertzioa sekula ez delako aurretik bilduta egon. Ez dugu asozianismo kulturarik izan gure artean eta orain arte sektore bereko komertzioak elkarri begira izan dira, albokoak zer egiten zuen zai. Bost urte egin ditugun arren, Bedelkar oraindik ere hasten ari da eta emaitzak epe erdira eta epe luzera helduko direlakoan nago. Herri mailako komertzioak batzuek beste dimentsio bat eman digu eta indar gehiago izatean gauza berriak planteatu ahal izan ditugu.

G. Zer nolako gaiak izan dira?

E. Elkartearen sortzean Merkataritza Ganbararekin eta Merkataritzako Federazioarekin harremanetan izan gara eta probintzia mailako hainbat gai lantzeko aukera izan dugu, kreditu txartelen komisioa esate baterako. Hainbat komertziotan, beherapenen sasoian kreditu txartelarekin erostean, banketxeak %4ko komisioarekin geratzen dira eta superfizie handien kasuan, berriz, ko-

“Elkarteak 5 urte ditu eta emaitzak epe erdi eta luzera iritsiko dira”

puru hori %0,5ekoa da, bolumen handiagoekin lan egiten dutelako. Komertziantek bakar batek ezin du ezer egin horren aurrean baina guztiok elkarrekin presioa egin dezakegu diferentzia hori horren handia ez izateko. Autonomoen kontratuen kasuan, beste horrenbeste: baja hartu eta lehen 15 egunetan ez dago ezer kobratzeko aukerarik eta hori aldatu beharra ikusten dugu.

Bailara mailan inguruko herrietako dendarien elkarteekin harremanak dauzkagu eta zaborren gaia aztertu

izan dugu. Astean hiru egunez jasotzen da zaborra eta jatetxeen kasuan ez da nahikoa, astebukaeran pilatzen delako zabor gehien. Mankomunitate mailan egunero zaborra jasotzea planteatu nahi dugu.

Azkenik, herri mailan ere badira landu beharreko gaiak eta gobernazio batzordeburua izendatzen denean, berarekin egoteko asmoa daukagu, aparkalekuen kontua eta zaborrena aztertzeko. Aparkaleku gehiago sortzea nekez ikusten dugu baina gai horri kon-

Larkano

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.

Tf. 943 76 25 03



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31

Tf. 943 76 20 02

BERGARA

PANA DE ROKUA
JATETXEA

Asteburuetan bertako
babak eta saibeskia

SALBADOR 10 ELGEIA
Tf. 943 76 82 73

ponbideren bat topatu behar zaio. Gai guzti hauek indibidualki planteatzeko ezinezkoa litzateke eta beraz Bedelkar sortzea beharrezkoa zen.

G. Emaizak igartzen dira?

E. Elkartearen balioa bazkideen kopuruan datza gaur egun 150 bazkide inguru ditugu eta horrenbeste bazkide izateak indarra ematen digu. Emaizak lehenago ala beranduago iritsiko dira.

G. Superfizie handien erruz, komertzio txikia arriskuan zegoela ematen zuen orain urte batzuk. Krisialdia gainditzea lortu al da?

E. Superfizie handien kontra gauza gutxi egin dezakegu. Superfizie handiek eta produktu bakarra lantzen duten frankiziek eragiten diote gehien komertzio txikiari eta ez da ahaztu behar komertzio txikiak herri bati ematen dioten bizitza. Begira bestela Soraluzen gertatutakoa: komertzialki hilda dago Soraluze eta bertako biztanleak Eibarrrera edo Bergarara etorri behar dira erosketak egitera nahitanahiez. Komertzio txikia desagertzen bada herria pitutara doa eta orain badirudi horrelako dendak bultzatzeko joera dagoela, zer nolako garrantzia duten ikusi delako. Hori da gure borroka: komertzio txikiaren alde egitea, Bergaran errepika ez dadin Iparraldean gertatu dena. Herrien kanpoaldean superfizie handiak ireki dira Iparraldeko leku askotan eta herriak bizitarik gabe geratu dira.

"Bedelkar elkartearen helburuetako bat herriko jendea hiriburuetara erosketak egitera gero eta gutxiago joatea lortzea da"

"Turismoa interesgarria iruditzen zaigu. Bergara monumentalara izan arren jende gutxi ezagutzen du. Turismoa indartzea gure onerako izango da"

Egia da orain urte batzuk baino hobeto gaudela eta gure helburua mantentzea eta ahal den heinean hobetzea da. Orain zertxobait kezkatuta gaude Labegariaietan superfizie handi bat jarriko den susmoa daukagulako. Industrialdeak egoten diren tokien inguruan superfizie handiak kokatzeko eskakizunak jasotzen dira, partikularren ize-nean gainera, enpresaren izena ezkutatuz eta Labegariaietan horrelako bat jartzeko eskaera egin dela entzun dugu.

G. Azken datuen arabera, bailarako egoera ekonomikoa ona da. Islatzen al da egoera hori komertzio mailan?

E. Langabezi tasa baxuenetakoa dugu Deba Garaian eta hori alderdi guztietan nabaritzen da, baita komertzio mailan ere. Baloratzeko zaila da zer no-

lako hobekuntza izan dugun baina argi dago orain urte batzuk baino hobeto gaudela eta komertzioak ere momentu ona bizi duela gaur egun.

G. Kanpoko jendea, erosleak erakartzea lortu da? Hobetu beharreko aspekturik ikusten duzu?

E. Bergarak betidanik izan du inguruko herri txikirengan eragina komertzio arloan eta alde horretatik Elgeta, Soraluze edo Antzuolako erosleak jasotzen jarraitzen dugu. Gure helburuetako bat herriko jendea hiriburuetara erosketak egitera gero eta gutxiago joatea lortzea da.

Eta hobetu beharreko gauzen artean, turismoaren gaia oso interesgarria iruditzen zaigu. Bergara herri monumentalara izan arren, jende gutxi ezagutzen du eta turismoa indartzeko egiten den guztia gure onerako izango da, ez dago dudarik. Herri monumentalara izateaz gain, turismoa jasotzeko azpiegitura egokia dauka: bi hotel eta laister zabalduko den agroturismoa. Bedelkaren partetik Bergarari buruzko souvenirrak sortzea beharrezkoa ikusten dugu, hona datozen bisitariak herriko oroigarri bat erosteko aukera izan dezaten, kontu horretan gauza gutxi egin baita. Kamisetak, postalak, giltzatak eta horrelako souvenirrak sortzea inte-



Bedelkarrek antolatutako zozketak bestelako ekitaldiekin tartekatzen dira. Argazkian, ekainaren 26an Simon Arrietan egindako eskulan erakusketaren irudia.



**Matxiategi
Elektragintza
C.B.**

**ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA**

Fleming 5 ☎ 943 76 19 94


GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro 8

Tf.: 943 76 27 70

BERGARA



resgarria izan daiteke eta udal museo-
logoarekin hori aztertzen izan gara. He-
rriaren izena zabaltzea guztion onerako
izango da.

G. Oraintsu Veneziara bidaiia zozke-
tatu berri duzue. Horrelako zozketak
errentagarriak al dira?

E. Beharbada Bedelkarren alderdi-
rik deigarriena zozketena da baina el-
karte mailan egin dezakegun lana
oraindik garrantzitsuagoa da. Dena
den, urtean zehar hiruzpalau zozketa
egotea eta gure bezeroak saritzea be-
harrezkotzat jotzen dugu, dinamika ho-
ri mantentzea interesatzen zaigu. San
Martin jaietarako beste zozketa bat

egingo dugu aurreko urteetan bezala
eta aurtengoa San Martinen ingurukoa
izango da, jendeari San Martini buruz-
ko galderak egingo dizkiogu eta asma-
tzen dutenen artean erosketa bonoak
zozketatuko ditugu. Gabonetakoa, ber-
riz, bailara mailan egitea pentsatzen
gaude eta saria, beraz, hobeia izango
da. Zozketak baliogarriak zaizkigu eta
beti ere bestelako ekitaldiekin (margo
eta eskulan erakusketak, txekor jana...
etab.) tartekatzen saiatzen gara.

Bestalde, Zerrajerak bere langileei
banatzen dizkien erosketa bonoak gure
komertzioetan gastatzen dituztenei be-
herapenak egiten dizkiogu eta horrek

ere milioi batzuk suposatzen dizkie el-
karteko bazkideei. Herriko komertzioa-
ren alde lan egiten saiatzen gara beti.

G. Bedelkarreko bazkideentzat
ikastaroak ere antolatzen dituzue.

E. Bai, informatikarekin edo euroa-
rekin ikastaroak antolatu izan ditugu
azkenaldian, gu afektatzen gaituzten
gaiet buruzko ikastaroak izaten dira eta
zentzu horretan Merkataritza Ganbare-
kin eta Merkataritzako Fderazioarekin
elkarlanean jarraitzen dugu. Elkarte ba-
rruan gure inguruko gaiak eta arazoak
komentatu eta irtenbidea topatzen aha-
legintzen gara.

G. Uztailako beherapenak heldu di-
ra orain. Kontsumitzaileen Elkarteak
behin baino gehiagotan kezu azaldu
dira beherapenekin, erosleak engaina-
tzeko modu bat dela salatuz.

E. Beherapenen gaia Eusko Jaurla-
ritzak araututa dauka eta elkartearen la-
na araudi hori errespetatzea da, beste-
rik ez. Gure bazkideek araudi hori be-
tetzen dute eta beraz erosleak trankil
asko ibili daitezke herriko dendetan
erosketak egiteko orduan, gure intere-
serako baita araudia betetzea. **B**

MAYA

Irizar 2.
Bergara
943 76 09 75

%0.50

Hemen bakarrik aurkituko duzu

amaya arzuaga
Fabricado por Elipse

GESHIRE

B.CN.XTC.BCN

Kailua

KANBAN

HO-SS
HOMELESS

ETA BESTE ASKO

GIDE COLOR



Dekorazio profesionala

Denetik pintura-dekoraziorako

Norberak etxea margotzeko
pinturak

Milaka kolore
egiten ditugu
momentuan




**Prezio
onenak!**



Luis, zuen zerbitzura.

Ordutegia: 08:00-13:00 eta 14:30-19:15 Zapatuetan: 09:30-13:00
Tf. 943 76 52 42. Faxa 943 76 56 17. Amillaga 5 (Renault ondoan)




ANTZUOLAN. HERRI BARRUAN
8 ETXEBITZA FAMILIABAKAR
ADOSATUAK, LORATEGIAREKIN
LASTER ERAIKIKO DIRA

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: 943 76 90 00




Erreka

Aparkalekuak
eta kalea



Lorategi
pribatua




Lorategi
pribatua

Terraza

Roman Laskurain, mendizalea

"Lekuak ezagutzea mendiak igotzea baino aberasgarriagoa da"

Roman Laskurain mendizale amorratua dugu. 41 urte ditu eta gazte-gaztetatik dabil mendi gainak igo eta igo. Pol-Pol Mendizale Taldeko kide honek, joan zen zapatuan amaitu zuen 1983, 1984 eta 1987an "Montes de Euskalerrria" izenburupean argitaratu ziren hiru liburuetan azaltzen diren 240 euskal mendietako gailurrak igotzea.



Roman Laskurain, "Montes de Euskalerrria" liburuak eskuan dituela.

G. 240 euskal mendi igotzean zer sentitzen da?

E. Ezer berezirik ez. Poliki poliki aritu naiz. Urteak eraman dizkit baina mendiak igo baino gehiago, tokiak ezagutzea garrantzitsua izan da niretzat.

G. Bakarrik aritu zara?

E. Normalean bai. Lagunek jai dute asteburuan eta nik ordea astean zehar. Hortik hasi zen guztia. Astean zehar zerbait egin behar nuela eta, mendiak igotzen hasi nintzen. Aipaturiko liburuen lehen argitalpena liburu azokan erosi nuen. Hasieran ez nuen guztiak egiteko asmorik baina...

G. Ze mendi aholkatuko zenuke?

E. Hiru Erregeen Mahaia. Joan zen zapatuan igo nuen. Ez da lehendabiziko aldia izan. Izugarria da behin goian izanez gero bertako paisajea ikustea.

G. Gogorrenak zeintzuk izan dira?

E. Euskal Herri mailan gogorrena Hiru Erregeen mahaia dela uste dut. Dena

dela, nik neuk bertigoa daukat eta Arabako Kantabriako zerran dagoen mendi bat igotzen nahiko gaizki pasatu nuela esan behar dut. Azken 100 metroek, metro eta erdi zabalera dute eta bi aldetatik izugarritzko aldatsa ikusten da. Soka eta guzti eraman behar izan genuen badaezpada.

G. Ezagutzen duzu antzerako zerbait egin duenik?

E. Ez. Badakit Euskal Mendizaleen Federazioak diploma berezia eman diola denbora jakin batean 100 mendi igotzea lortu duenari baina nire kasua ezberdina izan da. Ez naiz epe batera mugatu eta ez dut inondik inora ofizialtasunez jokatu.

G. Asteburuan egiteko gertuko mendi plana eskatuz gero zein izango litzateke?

E. Elgoibar eta Azpeitia aldean dagoen Madarixa oso polita da.

G. Atzerrian ibili zara...

E. Nahi beste ez baina... 1996an esaterako, Txinara joan nintzen Mustagata mendia igotzeko asmoz Iker Etxeberriarekin baina aizeak ez zigun gailurrera igotzen utzi. Bertan Jon Lazkano eta Tamayorekin egin genuen topa. Gu iristen eta beraiek etxera bueltan. Hauei ere gauza bera gertatu zitzairen, ez zuten gaina egiterik izan.

G. Zer egitea gustatuko litzazuke hurrengo?

E. Igotzerik izan ez genuen Mustagata mendia igotzea. Dena dela dirua eta denbora behar da. **B**


ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

Aldi bi

Aldibi autoak, S.A.
Zigarrola 1 • ARRASATE
Tf. 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65



Irizar 2

☎ 943 76 14 95

JAUJA
KIROLAK

ARRI
Industri
Hornidura

Zubiaurre 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Mugikorra: 670 31 92 44.

Beti Bustiren Saturraran-Deba VI. itsasbidaia eta kayak trabesia

Beti Busti Elkartek, Gipuzkoako piraguismo federazioarekin batera, Saturraran-Deba itsasbidaia antolatu du iganderako. Itsasbidaia goizeko 10:30etan emango zaio irteera Saturrango hondartzan. Parte hartzaileek, 5'6 kilometroko ibilbidea egin beharko dute Debara iritsi aurretik. Bestalde, eguerdi partean, kayak surf erakusketa ikus-

teko aukera izango da. Azken hau, Beti Bustik, Gipuzkoako eta Euskal Herriko Federazioen laguntzaz antolatu du. Erakustaldia amaituaz bat, parte hartzaileek lunch-a izango dute. Izen ematea egun berean egin ahal izango da goizeko 10:00ak arte, Saturrango hondartzan. Informazioa, 943.762793 eta 609.980010 telefonoetan.



Saturraran Deba Beti Bustik antolatutako garrantzitsuenetakoa da

Lazkanok, Tamayo eta Iñurrategi anaiekin, Izenik Gabeko Dorrea igo du



Ekainaren 28an, Jon Lazkanok bergararrak eta bere kideek Izenik Gabeko Dorrea (6.243) igo zuten. Greziako Olimpo (2.917), Irango Alan Khu eta Demavend (5.645) igo ondoren, gailur zorrotzenetakoa erakusten duen mendia tokatu zitzaion. Eguraldi onari eta lau mendizaleen artean eginiko lanari esker, agertu ziren zailtasunak gainditu eta laurak tontorra zapaldu zuten. Hurrengo erroka, Nanga Parbat zortzilikoa izango da.

Mendi bizikleta irteera



Bergarako Txirrindulari Elkartek igandeko mendi bizikleta irteera antolatu du. Oraingoan Bergara, Oñati, Urbia, Oñati, Bergara izango da ibilbidea. Irteera goizeko 8:30etan izango da, Beheko Estazioan.

Zabaleta arerio barik Udanan

Aitor Zabaleta gidari bergararra jaun eta jabe izan zen Euskal Herriko txapelketaren baitan jokatzeko den Udarako igoeran (Oñati). Lasterketak ez usteko handia izan zuen, kotxe bat errepedetik irten eta berderatzi ikusle harrapatu zituen. Zaurituak inguruko eritetxeetara eramanean zizuten berehala. Bestalde, gainontzeko lehen postuak Ruben Garcia eta Lebeitik eskuratu zituzten.

Bergarako Hiria pilota sariak etxean geratu dira

Eguakitzean jokatu ziren Bergarako Hiria pilota sariak bi finalak. Promesa mailan, Muguruza bergararrak eta Mendiluzek 22-5 irabazi zieten, Erauskin eta Retegiri. Afizionatu mailan, berriz, Iker Muruamendiarek eta Iñurrategik, 22-17

irabazi zuten Arbizu eta Errastiren kontra. Sari nagusiak Bergaran geratu ziren. Iker Muruamendiaz, bestalde, Elgetako lau t'erdiko finalera iritsi zen arren ez zuen irabazterik izan. Leiza lemoarrak 22-17 irabazi zion Elgetako finalean.



Finalistak, federazioko, udaletxeko eta pilota saileko ordezkariak

I P I N T Z A K O

futbol txapelketa



partiduak

NESKAK

Eguakitzita 9

Kadeteak (final erdiak)

19:00: Baleike-Las 43

19:00: EKA-Aldrebesak

Nagusiak

20:00: Lai Lai Lai-Zutaz Pentsatzen

20:00: Potzu Ta Zapaburuak-Biko

21:00: Onenak-Pentol's Team

Astelehena 12

Nagusiak

20:00: Elgetako Jaixon Berton-Potzu Ta Zapaburuak

20:00: Pentol's Team-Lai Lai Lai

21:00: Biko-Onenak

MUTILAK (final laurdenak)

Martitzena 13

19:15: Arloteak-Angiozar

20:30: Mongatxurak-Bildurbarek Opel Lam

Eguena 15

19:15: A Ze Flaxa La Guipuzcoana-Fatxurtu

20:30: Gore-Fo Fo Fo

emaitzak

MUTILAK

Arloteak-VTA	8-0
Bildurbarek Opel Lam-Game Over	5-0
Mongatxurak-Amilotx	3-0
Black & Decker-A Ze Flaxa La Guipuzcoana	3-7
Fatxurtu-Toyhu	6-2
Manitou-Fo Fo Fo	4-5
Ezinleike-Gore	2-6
La Juve-Mokolotov	1-4

NESKAK

Aldrebesak-Baleike	1-4
Las 43-EKA	0-10
Azkenak-Aupa	1-1
Zutaz Pentsatzen- Elgetako Jaixon Berton	2-0
Lai Lai Lai-Potzu Ta Zapaburuak	1-2
Biko-Pentol's Team	5-1

jokoz kanpo

Txonan Gallastegi
GORE

G. Lehen faseko partidu denetan irabazle...

E. Bai eta guztietan gol dezente sartu ditugu gainera. Partidu zailena Bildurbarek Opel Lam taldearen kontrakoa izan zen, kalitate oneko taldea delako, 5-1 nagusitu arren.

G. Espero zenuten final laurdenetarako hain errez sailkatzea?

E. Talde polita daukagu eta lehen fasea gainditzeko esperantza bageneukan. Orohar, txapelketa beste urte batzuetakoa baino orekatuagoa doala uste dut.

G. Zer nabarmenduko zenuke Goren?

E. Gol aukera asko sortzen ditugula, nahiz eta guztiak ez sartu. Hala ere, gol ugari sartu ditugu lau partidutan, 18 hain zuzen ere. Bestalde, lau bakarrik egin dizkigute.

G. Noren aurka neurtuko dituzue indarrak final laurdenetan?

E. Fo Fo Fo izango dugu etsai. Hiruzpalau jokalaria on dituzte eta partidu gogorra izango da. Dena dela, final erdietara heltzeko itxaropenak baditugu eta segun noren kontra tokatzen zaigun, baita finalera ere.

G. Aurtengo errebelazioa izan zarete?

E. Iaz ere ondo aritu ginen KIB izenarekin, nahiz eta final laurdenetan Mongatxurak-ek kanpoan laga. 1-0 galdu genuen...

gora eta behera



Fo Fo Fo

Isilik eta apal lan eginez, final laurdenetara heldu dira. Talde sendoa osatzen dute, mendea hartzea asko kostatzen den horietakoa. Martitzenean, Manitou-ren aurkako partidua antolajikoa izan zen.



Manitou

Aurten kaskar ibili den arren, jokalaria bikainak ditu Manitou taldeak eta gutxienez lehen fasea gainditu beharko luke. Hala ere, irregular samar ibili da eta, azkenean, kanpoan geratu da. Datorren urtean izan behar...

sailkapenak

A multzoa

	P	J	GA	GK
1. Arloteak	15	5	24	1
2. Fatxurtu	9	5	17	9
3. Euskal Beccia	6	4	10	10
4. Toyhu	4	5	9	16
5. VTA	4	5	12	21
6. Txokokuak	0	4	3	18

B multzoa

	P	J	GA	GK
1. Mongatxurak	13	5	17	1
2. Fo Fo Fo	10	5	20	18
3. Amilotx	7	5	7	8
4. Manitou	6	5	16	13
5. Osintxu	3	5	8	22
6. Matxakategi	3	5	10	16

C multzoa

	P	J	GA	GK
1. A Ze Flaxa La Guipuzcoana	13	5	16	7
2. Angiozar	9	4	16	3
3. Black & Decker	9	5	13	14
4. Altos Pornos	6	4	10	9
5. Mokolotov	4	5	9	11
6. La Juve	0	5	8	28

D multzoa

	P	J	GA	GK
1. Gore	12	4	18	4
2. Bildurbarek Opel Lam	9	4	12	7
3. Game Over	4	4	10	9
4. Ezinleike	4	4	7	11
5. Etengabe	0	4	5	21

Neskak, kadeteak

	P	J	GA	GK
1. Baleike	15	5	14	2
2. EKA	12	5	25	3
3. Aldrebesak	7	5	9	17
4. Las 43	5	5	10	19
5. Aupa	2	5	4	11
6. Azkenak	1	5	3	12

Neskak, nagusiak

	P	J	GA	GK
1. Zutaz Pentsatzen	15	5	20	4
2. Lai Lai Lai	9	4	13	5
3. Potzu Ta Zapaburuak	7	4	10	4
4. Biko	6	4	11	9
5. Onenak	4	4	9	9
6. Elgetako Jaixon Berton	3	5	5	16
7. Pentol's Team	0	4	2	23

golegileak

MUTILAK

1. Igor Larrañaga.....Gore.....9 gol
2. Bitor Jimenez.....A Ze Flaxa.....8 gol

NESKAK, NAGUSIAK

1. Eva Alzas.....Biko.....9 gol
2. Naiara Beistegi.....Lai Lai Lai.....6 gol

NESKAK, KADETEAK

1. Amaia Osa.....EKA.....7 gol
2. Lorea de Castro.....Baleike.....5 gol

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Artekalea. 943 76 02 24.

Masterreka. Amueblatua. 941 24 39 02.

Lizarratik 5 km.ra pisua salgai. 943 76 23 12.

Pisua salgai Martokon. Deitu 943 76 37 21 telefonora.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. 943 76 32 77.

Etxe berriztua Urteagan, 130 m². 943 76 08 79 (19:00etatik aurrera).

Estudioa Salouko Pinedan. 943 79 11 29 (lan ordutegia).

Etxe berriztua Zubiaurren. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m² ganbara. 943 76 21 80.

Zubiaurre. 943 76 49 30.

Pisua salgai Huelvan, garajearekin. 943 76 40 25.

ERRENTAN EMATEKO

Pisu amueblatua Martokon, urritik aurrera. Deitu 943 79 20 86 telefonora.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktatuak
Deiak
Bestelakoak

Apartamentua Torreveijan, uztailen. 943 74 24 50.

Estudioa Benidormen, plaia ondoan. Deitu 619 522 97 telefonora 1.

Laredon, plaiatik gertu. 943 76 13 86.

Pisua alokairuan Zarautzen, udan. 943 76 04 58.

ERRÉNTAN HARTZEKO

Pisua alokairuan hartuko nuke. 656 71 25 81.

ETXE KONPARTITUAK

Datorren ikasturtean Bilbon pisua konpartitzeko lagun bat behar da. 943 76 03 21.

2. GARAJEAK

SALDU

Zubiaurre. 943 76 08 89.

Zubiaurre. 943 76 23 53.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Burdiñate. 619 80 26 06.

Garajea salgai Iburgarain. 943 76 00 93.

Garajea salgai Boni Laskurainen. 943 76 18 85.

Iburgarai. 943 76 44 25.

S. Lorentzo. 943 76 48 09.

Martzial Agirren garaje bikoitza. 943 76 33 88.

3. LOKALAK

SALDU

Zubiaurren. 100 m². 13,5 milioi. 943 76 11 13.

ERRENTAN EMATEKO

Erreformatutako lokal komertziala alokairuan San Pedron. 943 76 57 69.

S. Pedron. 943 76 10 39.

Zubietan 136 m². 943 76 08 18.

Lokala Martokon, prezio onean. 943 76 11 13.

4. LANA

ESKAITZAK

Etxeko lanak edo hau-

rrak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Ana).

Mutila eskaintzen da lanerako. 943 76 04 40.

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Pertsona nagusiak zaintzen ditut gauetz. 610 01 06 19

Neska batek garbiketa lanak egin edo denda batean lan egingo luke. 943 76 35 38.

Arratsaldez lan egingo nuke. 943 76 52 39.

Neskak goizez haurrak zaindu edo dendan lan. 943 76 53 71 (Maite).

Emakumeak etxeko lanak edo atariak garbitu. 619 52 98 04.

Mutil gazte batek lan egingo luke udan. 943 76 44 04.

Emakume esperientziadunak dendan lan egingo luke. 943 76 07 69.

Neskak umeak zaindu eta etxeak garbitu. Abuztuak 1-15. 943 76 04 57.

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. 943 76 10 94 (arratsaldez).


Elgetako enpresa batek KONTABILITATEA eta FRANTSESA menperatzen dituen pertsona behar du
943 78 80 06
Astelenak eta astearteak
08:00-15:00. Olatz.



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Bergarako Udala



Euskara departamenturako aldi baterako **HIZKUNTZA TEKNIKARIA** kontratatzeko deialdia

EGINKIZUN NAGUSIA:
gizarteko zenbait sektoretan (kultra; kirolak eta aisialdia; merkataritza...) normalizazio programak bideratzen laguntzea.

Deialdia arautzen duten oinarriak eta gainontzeko argibideak jasotzeko, Udaleko idazkaritzara jo behar da.

Instantziak aurkezteko azken eguna: uztailren 16a.

Haurrak zaindu edo dendan lan. Uztailean. 943 76 38 90 (Amaia).

Haurrak zaindu uztailean. 943 76 46 32.

ESKAERAK

Umeak zaindu eta etxeko lanetarako neska behar da. 943 76 05 55 (gauzez).

Etxeko lanetarako eta ume bat zaintzeko neska euskalduna behar da Antzuolan. 943 76 64 24.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Ingeles filologian lizentziatuak klaseak ematen ditu. 943 76 30 28.

OHO eta BBB klaseak. Deitu 943 76 33 26 telefonora.

OHO eta DBH. Abuztuak 16-31. 943 76 25 90.

Ingeles klaseak. Esperientzia. 943 76 51 23.

Klase partikularrak. Deitu 943 76 17 57 telefonora (Rebeka).

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

OHO eta DBH klaseak. 943 76 26 27 (Ainhoa).

OHO. 943 76 37 94.

Hezkuntza berezian diplomatuak klaseak uztailean eta irailean. 943 76 31 79.

Mate, fisika eta kimika. Udan. 943 76 59 15.

ESKAERAK

Fisika, kimika eta biologiako unibertsitateko lehen mailako klaseak jaso nahi ditut. 629 26 39 45.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Citroen C25 furgoneta, bolumen handikoa. 943 76 28 93 (gauzez).

Fiesta 1300 (SS-W) prezio ona. 943 76 63 29.

Honda NSR 80 motorra salgai. 943 76 31 52.

Golf GTI. 943 76 05 96.

Renault 19 TXE 1.7. Aire egokitua. 250.000 pezeta. 943 76 19 56.

Honda CBR 600 F motorra. 630 56 55 06.

R-11 GTL. 125.000 pta. Egoera ona. 943 76 37 82.

Yamaha 600 Diversion motorra. 943 76 08 83.

Karabana plegablea. 943 76 29 29.

Roller Aloha karabana. 943 77 05 22 (gauzez).

Ford Sierra 2.3 diesela (SS-U). 943 76 40 54.

Peugeot 106 (SS-AN). 943 76 51 54 (gauzez).

Peugeot 306 TD. Aire egokitua. 943 76 32 20.

Citroen Saxo 1.1i. Bi urte. 943 76 12 66 (Xabi).

8. DENETARIK

SALDU

Kanpineko karro denda salgai. 943 76 64 65.

24 hazbeteko 2 mendi bizikleta. Barra baxukoa eta normalduna. 943 76 15 76.

Minolta argazki kamera, flaxa eta Takumar objektiboa. 943 79 06 15.

Kanpinerako "Iglou" hozkailua. 943 76 41 21.

Bi ohe, idazmahaia, al-

tzariak eta apalak. Haritz egurra. 943 76 43 37.

Merida mendi bizikleta, berri-berria. Aluminiozkoa. 943 76 05 88.

Ezkontza erreportajeak egiten ditut. 943 76 13 35.

Erretratuak marrazkiz egiten ditut pastel margoekin. 943 76 44 27.

EROSI

Bigarren eskuko hozgailua erosiko nuke. 943 76 10 60.

Paseoko bizikleta erosi-ko nuke. 943 76 52 89.

2. eskuko botoidun akordeoia. 943 76 47 48.

GALDU

Kataia eta Amabirjina- ren irudia duen medaila galdu nuen. Sarituko da. 943 76 40 67.

Domekan koloredun kartera galdu nuen San Pedron. 943 76 26 82.

BESTELAKOAK

Kotxedun pertsona behar da Bergara-Bilbo egiteko arratsaldeetan. 943 76 91 10.



Langai
Euskal Lan Zerbitzua

ALTZARI MUNTATZAILEA
Arabar Lautada. 1977/0

SARE TEKNIKARIA
Bilbo. 20149/4

HOTZ KLIMATIZAZIOKO TEKNIKARIA
Deba Behea. 20523/3

SUKALDARI ARDURADUNA
Valencia. 20691/1

INFORMATIKAN DIPLOMATUA
Amurrio. 21721/3

MAITREA
Valencia. 20692/1

SUKALDARI LAGUNTZAILEA
Hernani. 20728/4

SUKALDARIA
Bilbo. 20836/1

JATETXEKO ZERBITZARIA
Gasteiz. 20843/3

LANERAKO ARRISKUEN PREBENTZIOARRAKO TEKNIKARIA
Gasteiz. 21879/1

SUKALDARIA
Gasteiz. 21015/3

SUKALDEKO EKIPAMENDUEN MUNTATZAILEA
Deba Garaia. 21095/4

KONTUEN EZEKUTIBOIA
Durangaldea. 21488/5
MANTENIMENDURAKO PIOIA
Bilbo. 21523/4

AUTOMOBILEN ELEKTRIZISTA
Bilbo. 21610/4

ENKOFRATZAILEA
Bilbo. 21671/2

PATROIGILEA
Bilbo. 21687/1

DENDARIA
Bilbo. 21690/1

TORNULARI-DOITZAILEA
Mungioa. 21729/2

PROIEKTU GESTOREA
Bilbo. 21731/2

KONTSULTORE AHOLKULARIA
Bilbo. 21734/1

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

RAC
VASCO NAVARRO

AGENTEA-DELEGATUA

Ramon Maria Lili 6, behea
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54

Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera:
9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00

IRAEGI
ASEGURUAK

JOXAN BILBAO



olio-erakusketa

NAHIKARI taberna

Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

Esperientziadun
SUKALDARI
LAGUNTZAILEA
behar da

943 76 72 00

Taberna batean
sukaldaria edo
sukaldari laguntzailea
eta
bi zerbitzari
(neska eta mutila)

behar dira
943 76 18 49

Asier Altuna eta Telmo Esnalen "40 ezetz" bigarren filme laburra eskainiko da eguenean

Beste bi pelikula motz ere emango dira Novedades aretoan Jardunen eskutik

Jardunek udako gauak girotzeko hainbat jarduera antolatu ohi ditu azken urteotan sasoi honetan. Aurten ere, musika eta zine emanaldiak iragarri ditu: datorren eguenean euskarazko pelikula laburrak eskainiko dira Novedadesen; hurrengoan, hilak 22, jazz emanaldia lrala kalean.

Iaz euskarazko hiru filme labur eskaini ziren Kartzela Zaharrean: "Laugarren galeriatik", "Bernar" eta "Txotx". Piztutako ikusminaz eta lortutako arrakastaz jabeturik, aurten esperientzia errepikatzea pentsatu dute Jarduneko Kultura taldekoek. Oraingoan, Novedades aretoan izango da, zinea ikusteko areto egokiagoa duda barik, gaueko 10:30etatik aurrera eta sarrera doan izango da.

Telmo Esnal eta Asier Altunaren "40 ezetz", Jose Eizagirre eta Gaizka Villanteren "Securitas Angelorum" eta Beatriz de la Vegaren "Sarobe" filme laburrak emango dira. Esnalek eta Altunak, "Txotx" estraineko laburmetraiarekin lortutako arrakastaren ondoren, idi demen alde iluna, tongoak eta suspentsea jorratu dute bigarren pelikulan. Azkenaldian denon hizpide den klonazioaren kontuak badu tokia "40 ezetz" laburrean. 15 minutuko iraupena du eta Jose Ramon Soroiz, Pako Sagarzazu, Kandido Uranga eta Isidoro Fernandez dira protagonista nagusiak. Pelikulan, baina, bergarar ezagun batzuen aurpegiak ere ikus daitezke.

"Txotx" bezala, Telmo Esnalen eta

Asier Altunaren bigarren laburra ere Txepe Lara iruñearrak ekoiztu du eta aurtengo martxoan bukatu bazen ere, dagoeneko hainbat zine jaialditan erakutsi da eta kritika onak jaso ditu. Uda ostean, Donostiako Nazioarteko Beldurrezko Zine Jaialdian erakutsiko da.

"Securitas angelorum" Joxe Eizagirre eta Gaizka Villanteren, bestalde, Ondarroan grabatu da. Lanera egunero elkarrekin joaten diren bi lagunetariko bat, gertakari batzuen ondorioz, laguna pertsona arraroa dela konturatzen hasten da eta gizakia ez ote den susmoa ere hartzen du. Azkenean, bere aingeru guardakoa dela konturatzen da. Zintak 20 minutuko iraupena du.

Datorren eguenean eskainiko den hirugarren pelikula "Sarobe" izenekoa, Beatriz de la Vegarena da eta Aralarren

errodatu da. Martin Zabala eta Patxi Bisquert dira protagonistak eta 15 minutu irauten du. 1411. urtean Burundako bailaran girotua dago. Zine emanak zunean pelikulen egileak bertan izango dira hauei buruzko azalpenak emateko.


JAZZ EMANALDIA

Bestalde, uztailaren 22an 22:30etatik aurrera jazz emanaldia izango da Irala kalean, Ganbara eta Kafe tabernen aurrealdean. Lehen Old Boys Quintet taldean aritutako hiru lagunek eta beste hiru berrik eskainiko dute jazz-fusion musika emanaldia. Honako hauek osatzen dute taldea: Asier Elortza (tronpetista), Jesus Alvarez (saxo tenorea), Ander Garitano (bateria), Oskar Gonzalez (kitarra), Enrike Txurruka (teklatuak) eta Nagore Sanz (baxua). **B**



Asier Altuna eta Telmo Esnal, "Txotx" eta "40 ezetz" filme laburren egileak.

ASIER ALTUNA



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerrika 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxe: 943 76 11 40.

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
943 76 50 68

erakusketa

Kirol argazkiak Kultur Etxean

Lehiaketara aurkeztutako 40 argazki ikusgai



Javier Vicentek jaso du zuri-beltzeko kategorian, herriko onenaren saria "Arko tiraketa" argazkiarekin.

Domekara arte ikusgai daude Kultur Etxean, Kirol Argazkien IX. Lehiaketara aurkeztutako lanak. 40 argazki eskegi dira guztira: 20 zuri-beltzekoak eta beste 20 koloretakoak. Joan zen eguakitzean banatu ziren sariak. Zuri-beltzean, Javier P. Fernandez Ferraras berangoarrak, eta Benito Cantero eta Jose Agustin Gurrutxaga bergararrek eraman zituzten lehen hiru sariak; Bergarako onenarena, berriz, Javier Vicentek. Koloretan, bestalde, Iñaki Delgado donostiarrak, Ion Monterroso usurbildarrak eta Jose Agustin Gurrutxagak; bergarar onenarena, Benito Canterok. 25.000, 20.000, 15.000 eta 10.000 pezeta eta trofeo bana jaso zituzten sarituek.

Arte gunea datorren eguakitzean zabalduko da

Datorren eguakitzean zabalduko da Beart-en arte gunea, Bergaran egiten diren pintura, eskultura eta zeramika erakusketa batekin. Beart hainbat artista plastikok sortutako elkarte da eta elkartearen helburua da eskualdean era honetako azpiegiturak garatzea. Lokalak 400 metro karratuko azalera era-

bilgarria du, bost espazio ditu bi alturatan banatuta eta erakusketa areto bat. Lokala arte plastikoen irakaskuntzarako, lanerako eta hainbat jarduerantolatzeko erabiliko da, esaterako, jardueratik artistikoak, ikastaroak, tailerrak eta abar antolatzeko; baita gunen moduan erabiltzeko artistei lagatzeko ere.

salduenak / ekaina

LIBURUAK

Euskaraz

1. BERANDU DA GELDITZEKO
Unai Iturriaga. Susa
2. AGIRRE ZAHARRAREN KARTZELALDI...
Koldo Izagirre. Elkar
3. PUTZU
Txillardegi. Elkar
4. LAURA KANPOAN DA
Jabier Muguruza. Erein
5. HAIZEA MINDU GABE
Jon Gaztelumendi. Susa

Erdaraz

1. LAS ARENAS DE AMON
M. Manfredi. Grijalbo
2. HERMON. CABALLO DE TROYA 6
J.J. Benitez. Planeta
3. EL NOMBRE QUE AHORA DIGO
A. Soler. Espasa
4. EL TESTAMENTO
J. Grisham. Ediciones B
5. EL COLLAR DEL NEARDENTAL
Juan Luis Arsuaga. Temas de hoy
Iturria: Etxepare-Bilintx eta Peñalba

DISKOAK

1. OROITZEN
Paco Ibañez-Imanol
2. ZURE MINARI
Bide Ertzean
3. MIKE OLDFIELD
Guitars
4. BRITNEY SPEARS
Baby one more time
5. INSHALA
Alaitz eta Maider
6. MILLENIUM
Backstreet Boys
7. CHAYANNE
Atado a tu amor
Iturria: Etxepare-Bilintx eta Zaiazko

BERGARA
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA



Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Gaitzestearen ondorioa. 2. Semearen emaztea. Guztiak, denak. 3. Harroputzak. Kontsonante bikoitza. 4. Ikas eta Ari. Auzia. 5. Lauoinka. Amerizioa. 6. Ut! Burdinazko lokarria. 7. Ba..., baneuka. Aluminioa. Klarion. 8. Tona. Ur korronteak. Azkenekoa. 9. Hegaztien kaka. Ezagutu. 10. Xume. Australiako ugaztuna.

Goitik behera

1. Gehitzearen ondorioa. 2. Miatu. Alderantziz, 3,1416. 3. Hedabide-mota. Garoa, iratztea. 4. Jatorri atzikia. Esku itxi. 5. Arrazoiak. Egiteko, behar. 6. Pluralean, txori-mota. Bat. Potasioa. 7. Sufrea. Errepikatuz, gorotza. Kitto. 8. Italiako ibaia. Zati txikia. 9. Santutegi batera erromerian doana. Zulo hitzaren kontsonanteak. 10. Zein lekutara. Arazoa.

Soluzioa

10. Nora. Auzia. 9. Erromes. Zi. 8. Ka. Akabo. 8. Po. Zatikia. 7. Zoak. Lan. 6. Enarak. I. K. 5. Irati. Ira. 4. Tar. Ukabil. 3. Gehikuntza. 2. Arakatu. 1P. Goitik behera. 8. Zrin. Biz. 10. Apal. Koala. 7. Nu. Al. Kisu. 8. T. Ibaiek. Z. 6. Katua. Am. 6. Urti. Kataa. 5. Harroak. Rr. 4. Ika. Arazoa. 1. Gaitzespen. 2. Erain. Oro. Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Zein da San Kristobal ermitatik oso gertu dagoen baserri honen izena?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezuen!

1. Zenbagarren legealdia egingo du Victoriano Gallastegik alkatetzan?
A- 4.a
B- 3.a
C- 1.goa
2. Zenbat euskal mendi igo ditu Roman Laskurain bergarar mendizaleak?
A- 240
B- 260
C- 245
3. Noiz zabalduko da Beart elkartearen Boluko arte gunea?
A- Uztailaren 9an
B- Uztailaren 22an
C- Uztailaren 16an

Jari Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Ugarrixa** merenderoan izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Kontxi Epelderentzat** izan da: Azpeitxi jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Kontxiri! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Udalaitz (ezkerrekoa) eta Aboto** Galde Debalde: **1-B, 2-A, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____

Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

Ugarrixa
merenderoa

Ugarrixa 6
Tf. 943 76 28 92

Oin dala 26 urte Larrañaga autoeskolan klaseak emoten hasi zanetik, 2.000 lagun inguruk ikasi dabe berarekin kotxia gidatzen. 45 urte bete berri dattu, ezkontuta dago eta bi seme-alaba dauzke.

Mariano Perez

Egunean, zenbat ordu kotxian?

10 bat.

Lan gehixen, noiz?

Hemendik martxora bittartean.

Ikasle onenak, zeintzuk?

Gaztiak azkarrago ikasten dabe.

Ikastia gehien kostatzen jakuena?

Martxekin izaten dabe arazo gehixen.

Zenbat urtekin atera ziñuan karneta?

18 urterekin.

Lehenenguan?

Ez.

Zein kotxe daukazu?

Peugeot 605 bat.

Eta zein izatea gustatuko litzakizu?

Audi 4 bat, BMW 320ia..., asko daude.

Kotxe txikixak ala haundixak?

Haundixak.

Formula 1 ala rallyak?

Ikusteko Formula 1a.

Piloto bat?

Ayrton Senna.

Kotxian, irratixa ala musikia?

Irratixa nahixago, Radio Euskadi jartzen dot.

Afiziño bat?

Kazia, tirua, bizikletia, musa...

Sukaldari ona zara?

Gertatzen dituden gauzekin ondo moldatzen naiz.

Janari bat eta edari bat?

Bakailaua bizkaitar erara eta urteko ardo beltza.

Urtaro bat?

Udazkena.

Udan, igerilekuak ala hondartza?

Hondartza.

Gustoko hondartza bat?

Donostiako Kontxa.

Txikitan zer izatea nahi zenuen?

Medikua, bonberoa..., danon antzera.

Ikasle ona zinen?

14 urtera arte bai...

Bestiengan gehixen apreziatzen dozuna?

Adiskidetasuna.

Oroitzapen on bat?

Seme-alaben jaixotzia.

Usain bat?

Bustittako lurrarena.

Mania bat?

Puntualidadia.

Kolore bat?

Urdin iluna.

Animalixa bat?

Txakurra, bi hyspaniel breton dauzkat.

Bibotea, noiztik?


1975.etik, soldadutza garaitik.

Olanok zein postutan Tourrean?

Hamar lehenenguen artian.

200 milioikin zer egingo ziñuke?

Disfrutau! **IB**



BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Telefono. 761051

R.S.I. 209374-95

BERGARA

Gozogintzan aintzindari.

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta 6 ☎ 76 13 23

HIRU BIDE
JATETXEA-BENTA

Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45

SANTOS
IRRATI-TB

TELEFONIA MUGIKORRA
• SUKALDEKO ALTZARIAK •
ARGIZTAPENA

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

Likidazioa
artikulu askotan

Nerea

Simon Arrieta plaza 1 Tf. 943 76 19 52



Mendizale sarituak, 1965

Aste honetako erretratuan garai bateko mendizale koadrila bat agertzen zaigu. Pol-Pol Mendizale taldeak antolatutako bosgarren martxa erregulatuaren ostean egindako sari banaketako irudia duzue hain zuzen ere. Orduan ere jende askok hartzen zuen parte Pol-Polek deitutako ekitaldietan. Martxa erregulatuaren bosgarren edizioan, orain dela 34 urte, mendizaleek honako ibilbidea egin behar izan zuten: Bergara-San Migel-Arrolamendi-Deskarga-Gorla eta Bergara. Partaideak binaka atera ziren eta sasoi onean zirela erakutsi zuten gehienek.

Jose Luis Kapanaga genuen orduan Pol-Poleko presidentea eta mendizale onenek oroigarriak jaso zituzten 1965ko urriaren 23an Seminarioko aretoan egindako sari banaketan. Horra hor argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Marina Padilla eta Maritere Basabe.

Jarrita: Palmira Gonzalez, Maria Luisa Ezkurra, Rosa Mari Abajo, Purita Garcia (aurrerendagoena), Angelita Garmendia eta Lucia Farras.

Argazkia: Purita Garcia

PROIEKTU BEREZI BATERAKO argazkiak behar ditugu

Antzinako lanbideen (errementaritz, burdinola, ehungintza, karegintza, larrugintza...) argazki zahar edo berriak baldin badauzkazu, BERRIGARARA edo JARDUNERA ekartzea eskertuko genizuke. Argazki denak itzuli egingo dizkizugu.

Berrigara: Errotalde jauregia. 943 76 03 97. Jardun: Kartzela zaharra. 943 76 08 19

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3



umelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



LILURA

Edertze Institutua

Bidekurutzeta 7. BERGARA. Telefonoa: 943 76 31 71

Abuztuko ordutegia:
goizeko 9etatik arratsaldeko 6ak arte JARRAIAN
 Abuztuaren 7tik 22ra itxita

Mikropigmentazioa

Nabarmendu zure edertasuna
 makilaje iraunkorarekin

Dei egizu konpromezu barik eta behar beste
 informazio emango dizugu: 943 76 31 71



AURRETIK



ONDOREN

UGARTE

ARROZTEGIA



ALTZARIAK DEKORAZIOA

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak



San Juan 1, (Barruti). BERGARA.
 Telefonoa eta faxa: 943 76 54 91



UNITED COLORS
OF BENETTON.

BEHERAPENAK!

Maalako
errebala 13
ARRASATE